

**Ekonomia eta Enpresa Fakultatea
Gipuzkoako atala**

**Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua
2018-2019 Ikasturtea**

Gradu Amaierako Lana

**Informazioa eta Komunikazioen Teknologiaren (IKT)
kontsumoa eta erabilera**

**Ikaslea: Nerea Gorostidi Iceta
Zuzendaria: Marian Zubia Zubiaurre
Donostia, 2019**

Aurkibidea

1.	Sarrera	1
2.	Informazioa eta Komunikazioen Teknologia (IKT)	2
2.1.	Sarrera.....	2
2.2.	IKT-aren aplikazio-eremuak	3
2.3.	IKT-aren abantaila eta desabantailak	4
2.4.	IKT sektorea	5
2.5.	IKT-aren erabilera Espainiako etxeetan	8
3.	Internet.....	9
4.	Mugikorra	13
5.	IKT gailuen erabilera Espainiako Autonomia-Erkidego bakoitzean.....	19
6.	Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) kasua.....	20
6.1.	IKT-aren erabilera EAE-n	20
6.2.	Interneten erabilera EAE-n	22
6.3.	Mugikorren erabilera Euskal Autonomia Erkidegoan.....	27
7.	Galdetegia.....	28
7.1.	Internetaren erabilera	33
7.2.	Mugikorraren erabilera	37
7.3.	Galdetegiaren ondorioak.....	43
8.	Ondorioak	44
9.	Erreferentzia iturriak	46

Irudien aurkibidea

1.	irudia: IKT sektoreko enpresa kopurua.	5
2.	irudia: IKT sektoreko negozio zifra.	6
3.	irudia: IKT sektoreko langile kopurua.....	7
4.	irudia: IKT sektoreko inbertsioa.....	7
5.	irudia: IKT gailuak Espainiako etxeetan.	8
6.	irudia: Internet konexioa duten etxebizitzak.	10
7.	irudia: Internet erabilera 16-74 urteko pertsonen artean.	11
8.	irudia: Internet erabiltzaileek egindako jarduerak sexuaren arabera banatuta.	12
9.	irudia: mugikorra duten etxebizitzak, mugikor gabeko etxebizitzaren gain.	14
10.	irudia: mugikor erabiltzaileak.	15
11.	irudia: Internetaren erabilera generoa arabera.	33
12.	irudia: Internetaren erabilera adinaren arabera.	33

13. irudia: Internet bidez egindako jarduera nagusiak generoaren arabera.	34
14. irudia: Internet bidez egindako jarduera nagusiak adinaren arabera.....	34
15. irudia: Internet bidez erosten diren ondasun edo zerbitzuak generoaren arabera.	35
16. irudia: Internet bidez erosten diren ondasun edo zerbitzuak adinaren arabera.....	35
17. irudia: Internetaren erabileraren inguruko beste zenbait datu.	36
18. irudia: mugikorren inguruko informazioa.	37
19. irudia: mugikor bidez erabiltzaileek egiten dituzten jarduera nagusiak, generoaren arabera.....	39
20. irudia: mugikor bidez erabiltzaileek egiten dituzten jarduera nagusiak, adinaren arabera.....	39
21. irudia: erabiltzaileen ustez, mugikorra erabiltzen pasatzen duten denbora, generoaren arabera.....	40
22. irudia: erabiltzaileen ustez, mugikorra erabiltzen pasatzen duten denbora, adinaren arabera.	40
23. irudia: erabiltzaileek gehien erabiltzen dituzten sare sozialak, generoaren arabera.	41
24. irudia: erabiltzaileek gehien erabiltzen dituzten sare sozialak, adinaren arabera. .	41
25. irudia: mugikorraren dependentziaren inguruko iritzia, generoaren arabera.....	42
26. irudia: mugikorraren dependentziaren inguruko iritzia, adinaren arabera.	42
27. irudia: mugikorraren dependentzia murrizteko neurriak, generoaren arabera.	43
28. irudia: mugikorraren dependentzia murrizteko neurriak, adinaren arabera.	43

Taulen aurkibidea

1. taula: Interneten adingabe erabiltzaileak.	11
2. taula: eguneko kontsumo denbora.	16
3. taula: mugikorraren adingabe erabiltzaileak.	17
4. taula: Espainiako AEko etxebizitzetan dituzten IKTak.	19
5. taula: IKT ekipamentuak, probintzia eta familia motaren arabera.	21
6. taula: EAE-ko 15 urte baino gehiagoko biztanleak IKT ekipamenduaren eta probintziaren arabera.....	21
7. taula: EAE-ko familiak 16-74 urte bitarteko pertsonak dituztenak eta Internet konexioa dutenak.	22
8. taula: EAEko 15 urte eta gehiagoko Internet erabiltzaileak.....	23
9. taula: EAE-ko 15 urte baino gehiagoko Internet erabiltzaileak.....	24
10. taula: EAE-ko 15 urte baino gehiagoko Internet erabiltzaileak.....	25
11. taula: EAE-ko 15 urte baino gehiagoko Internet erabiltzaileak.....	26

1. Sarrera

Gradu amaierako lan hau kontsumoaren inguruko analisi edota ikerketa bat da. Lan honen xedea, gaur egun kontsumitzen dugun produktu edo zerbitzu bat aukeratu eta honen inguruko datuak lortu eta aztertu ondoren ondorio batzuetara iristea da.

Egunerokotasunean kontsumitzen dugun produktu edo zerbitzu baten inguruan pentsatzen jarri orduko, milaka adibide edo aukera etor daitezke burura, baina, ingurura begiratzen hasten bagara, bada eguneroko kontsumoan nabarmentzen den produktu bat. Denok momentu oro alboan daramagu eta une oro erabiltzen dugu, ziur aski momentu honetan milaka pertsona ari dira produktu hau kontsumitzen. Mugikorra dugu produktu hau eta aipatu bezala, egunerokotasunean ia denok kontsumitzen dugun produktua da.

Lan hau egiteko orduan gai hau aukeratu dut, batetik, lehen aipatu bezala, inguruko guztiek kontsumitzen dutelako, eta bestetik, benetan ez garelako ohartzen gure gizartean mugikorrak duen botere edo indarra nolakoa den.

Ez dago dudarik mugikorrak paper garrantzitsua duela egunerokotasunean eta azken urteetan erabilera handitzeaz gain, geroz eta gehiagok erabiltzen dugula. Esan daiteke, gaur egun ez dakigula mugikor gabe bizitzen. Horrenbestez, produktu hau, edonorentzat ezaguna izanik eta nola ez, ni ere kontsumitzaile izanik, analisi eta ikerketa sakon bat egitea erabaki dut, gaur egungo datuak ezagutzeko eta honen inguruan hausnarketa bat egiteko.

Lan hau abian jartzeko, lehenik eta behin oinarritik hasiko naiz; hau da, hasiera batean, Informazio eta Komunikazio Teknologia (IKT) zer den ulertu eta honen kontsumoa Espainia mailan ezagutuko dut. Jarraian, gaur egun tresna garrantzitsu eta ezaguna den Internet-en testuingurua aztertu eta Espainia mailan honen erabilera ikertuko dut. Azkenik, mugikorraren kasua, hau da, lanaren muina, hasteko mugikorraren sorrera eta eboluzioari erreferentzia egingo diot eta ondoren, beste kasuetan bezala, Espainiako erabilera aztertu. Mugikorraren kontsumoa aztertzeko garaian gehiegizko kontsumoa, sare sozialak eta adingabekoen erabilera azpimarratuko ditut. Behin Espainiako kasua orokorrean aztertu ondoren, Espainiako Autonomia Erkidego bakoitzaren egoera ikusi eta Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) kasuan zentratuko naiz, lehen aipatutako hiru tresnen kontsumoa bertan ikertuz.

Analisi deskribatzaile hau eraman ahal izateko, batetik, Internet bidezko datu-base desberdinak erabiliko ditut, esaterako, INE, Eustat... eta bestetik, erakunde edota enpresa desberdinek egindako informe eta ikerketak erabiliko ditut. Nola ez, Interneten aurki daitezkeen artikulak eta web-orriak ere baliagarriak izango dira analisirako.

Behin Espainia eta EAE-ko analisi deskribatzailea gauzatu ondoren, nire inguruko jendearen IKT-eko erabilera zenbatekoa eta nolakoa den ezagutu nahi izan dut. Horretarako, aipatutako datu-baseak oinarritzat hartuz, galdetegi bat osatu eta nire lagun, familia eta ikaskideei bideratu diet. Hauen analisi deskribatzailea egin ondoren, nire egoera konparatu dut emaitzekin eta ondorio pertsonal batera heldu naiz: nire adineko gazte askok bezala, mugikorraren gehiegizko erabilera egiten dudala.

Lanaren amaieran, ondorio pertsonalez gain ondorio orokorrak lortu ditut, Espainia eta EAE-ko emaitzak kontuan izanda. Behin ondorio hauek lortuta, etorkizuneko kontsumoaren inguruko hipotesiak formulatzea izango da azken pausoa.

2. Informazioa eta Komunikazioen Teknologia (IKT)

2.1. Sarrera

Informazioa eta Komunikazioen Teknologia (IKT), informazioa eta komunikazioa eraginkorragoa izan dadin egunerokotasunean garatutako teknologia multzo bat da. Hauek, ezagutzara eta gizakien harremanetara gerturatzeko moduak hobetu dituzte. IKT-ak informazioa lortzeko moduak eraldatu ditu komunikazio teknologiarri (egunkari, irrati eta telebista), Internetaren garapenari eta tresna teknologiko berriei esker, hala nola, ordenagailu, tablet eta mugikor, plataforma eta software erabilgarriari esker.

IKT-ak esanahi desberdina izan dezake testuinguruaren arabera:

- Sareak: irrati, telebista, telefono finko eta mugikorren sareei egiten die erreferentzia.
- Azken gailu eta ekipoak: informazio eta komunikazio sareen bidez jarduten duten mota guztietako tresnak biltzen dituzte. Adibidez, ordenagailu, mugikor, telebista
- Zerbitzuak: aurreko baliabideen bidez eskaintzen dituen zerbitzu multzoari egiten dio erreferentzia. Esaterako, korreo elektronikoa, hodeian gordetzea, distantziako hezkuntza, e.a.

IKT-ak ezaugarri desberdinak barneratzen ditu, batetik, gizakiaren ezagutza eta bititza sozialaren esparru guztiak barneratzen ditu, hala nola, etxea, hezkuntza, denbora libre, lana eta ezagutza lotzeko prozesu edo modua eraldatzen du. Bestetik, materiagabeak eta berehalakoak dira, informazioa sare birtualen bidez sortzen baita, distantzia fisikoa alde batera utziz, eta informazioa eta komunikaziorako sarbidea denbora errealean emanez. Gainera, datuen informazioa digitalizatu izan behar da, berdindio, testu, argazki edo audio izan, eta, nola ez, malgua edozein aldaketen aurrean berreraikitzeke. Azkenik, interkonexioaren printzipioari zuzenduta dago, hau da, komunikatzeko posibilitate berriak sortzea ahalbidetzen ditu, bi teknologia edo gehiagoren konexioaren bidez. Horretaz gain, interaktiboak dira, hau da, erabiltzailearen parte-hartzea beharrezkoa da informazioaren prozesaketaren prozesuan eta baliabide erabilgarriak beren beharretara moldatzeko unean (TIC (Tecnologías de la información y la comunicación), 2019).

Historian atzera joanda lehenengo komunikazio gailua XIX. mendekoa da, telegrafoa, alegia, distantzia luzeetako komunikazioa errazten duena. Bigarren gailua, berriz, telefonoa da, XIX. mendearen bigarren erdialdean sortua, eta ondorengo hamarkadetako komunikazioaren oinarri dena.

XX. mendeko 60 eta 70 hamarkadan berriz, lehen ordenagailua sortu zen eta baita 1945-1985 urte bitartean, lehen sarea ere, gaur egun Internet izenez ezagutzen dena. Urte horietan egindako salto teknologikoari esker behin betiko barneratzen da informatika komunikazioan, orduan hasiz aro digitala. Gainera, 80. hamarkadan zehar ordenagailu pertsonalak garatzen hasi ziren eta baita mugikor mota desberdinak ere, tamaina eta prestazio hobeagoekin.

90. hamarkadan teknologiak bultzada garrantzitsu bat jaso zuen, Internet et World Wide Web (www)-rekin. Berrikuntza hau planeta guztira zabaldu da, horrela lehen aldiz mundu osoa interkonektatuta egonik. Honi, gaur egungo ordenagailu eta mugikorrek gehituz gero, ikaragarriko aurrerapena dela esan daiteke. Gainera, salto digital honek aurrerapen handia egin du datuak helarazteko orduan kalitate eta abiadura handituz, horrela berehalakoa izanik. Esan daiteke IKT-ak lortutako erreboluzio hau soilik konparagarria dela inprentaren erreboluzioarekin (Montano).

2.2. IKT-aren aplikazio-eremuak

Informazioa eta Komunikazioaren Teknologia eremu desberdinetan erabiltzen da, hala nola, lanean, hezkuntzan, osasunean, denbora librean e.a.

Lanaren eremuan, adibidez, tresna garrantzitsua da. Datu-base konplexuak erraz gordetzea ahalbideratzen du, zerbitzari lokalean nahiz hodeiko zerbitzarian. Gainera, beharrezkoak dira online merkataritza, banka elektronikoa, kontabilitate arloa, informazio bilaketa, inbentario kontrola garatzeko eta komunikazioa azkarra eta eraginkorra izateko. Honek guztiak inpaktu positiboa izan dezake produktibitatean eta enpresen lehiakortasunean, negozioak egiteko modua eraldatzen ari baita. Hala eta guztiz ere, IKT-a distrazio tresna izan daiteke, geroz eta erabilera gehiagok eta menpekotasunak, langileak beren egin beharretatik aldentzen ditu.

Hezkuntzaren eremuari dagokionez, azken urtetan IKT tresna garrantzitsu bihurtu da, politika berrien eta hezkuntza-proiektuen garapenean, izan ere, ezagutzara iristen lagundu baitute. Hauek hezkuntzaren sarbiderako aukera erraztu dute, modu jarraituan edota distantzian. Modu honetan, hezkuntzari zuzendutako Internet bidezko zerbitzu eta plataformak garatu dira, zeinak, ikasteko eta irakasteko moduak aldatu dituzten. Plataformen artean aipatzekoa da e-learning. Plataforma hauek baliabide desberdinak erabiltzen dituzte, hala nola, arbel interaktiboak, gela birtualak denbora errealean, eztabaida gelak, foroak, galdeketak, eskemak, ikus-entzunezko baliabideak, bibliografia digitalizatua.

Baina hezkuntzan IKT-aren erabilerak zenbait desabantaila sor ditzake. Batetik, desberdintasun handiak daude teknologiaen sarbidearen inguruan hainbat faktoreengatik, halaber, pobrezia edo hezkuntza-politika publikoen falta. Bestetik, IKT erabiltzeak beharrezko espazio eta ekipoak izateko aukera eskaintzen du eta gainera, Estatuak, eskolak edota irakasleek behar bezala estrukturatutako prestakuntza edo ikasketa planik gabe, IKT-eak sakabanaketa bat sor dezake ikaste eremuan (TIC (Tecnologías de la información y la comunicación), 2019).

Osasunaren arloan berriz, IKT-ak osasun teknologien parte dira. Beraien egin behar nagusia osasun arloko profesionaleri zerbitzuak eskaintzea da, osasun kalitate eta arreta hobetzeko. Beharrezko baliabide, gailu eta metodoez arduratzen da, osasun eta bio-medikuntzaren informazioa eskuratzea, biltegitratzea, errekuiperatzea eta erabilera optimizatzeko. Osasuneko instrumentu informatikoak ordenagailuak ez ezik, klinika praktikoko gidak, medikuntza terminologi eta komunikazio formala eta informazio sistemak barneratzen dituzte. Gaur egun, osasunaren arloan ezagunak dira e-salud, telemedicina eta telesalud terminoak. Osasun eremura zuzenduriko sistema informatiko hauek autonomoki garatu dira eta ez dute irizpide homogeneorik elkarbanatzen. Datu bolumen handiak biltegitratzen ez dituztenez, ez dituzte informazio fluxu konplexuak eta sozietatearen ekarpenik behar (Puyol, 2016).

Azkenik, denbora librean, IKT gailuek komunikatzeko aukera gehiago emateaz gain, dibertitzeko eta entretenitzeko milaka posibilitate ematen dituzte. Bi pertsonen arteko komunikazio pertsonalaz gain, sare sozial, foro, txat eta Whatsapp-eko taldeak, bezalako aukerak eskaintzen dituzte, komunikazioa hobetzeko. Komunikazioaz gain, pelikula, telesail, bideo jolas, liburu elektronikoa, blog, aldizkari e.a. eskura daude IKT-ari esker, denbora librean hobetzeko (Grupo IOE, 2018).

2.3. IKT-aren abantaila eta desabantailak

Informazioa eta komunikazioaren teknologiak baditu zenbait abantaila:

- Informazioa lortzea errazten dute.
- Hezkuntza zentro desberdinen sareko konexioa hobetzen du, komunitate nozioa handituz.
- Pentsatzeko modu desberdinak sustatzen ditu.
- Ezagutzaren printzipio sortzailea hobetzen du.
- Erabiltzaileen alfabetizazio digitala baimentzen du.
- Hezkuntzaren arloan, irakasle eta ikasleen arteko adin tartea konpontzen du.
- Hezkuntza eta administrazio gestioaren tresna bat da, izan ere, datu base eta estatistiketara modu erraz batez irits daiteke, horrela ikasleen jarrera akademikoa ezagutzeko.

Abantaila hauez gain, baditu beste zenbait desabantaila ere, esaterako:

- Informazio asko dago, baina ez dago organizatuta, banatuta baizik.
- IKT-ak distrakzio elementu izan daiteke, non, pertsona bere egin beharretatik aldentu dezakeen.
- Plataformak bezalako gailu edo instrumentuak etengabe aldatzen dira, eguneratze jarrai bat suposatuz.
- Datu pertsonalak zabaltzearen arriskua.

(TIC (Tecnologías de la información y la comunicación), 2019)

2.4. IKT sektorea

IKT-az hitz egitean, garrantzitsua da honen sektorea ezagutu eta Espainiako zenbait datu aztertzea, ikerketa sakonagoa izan dadin.

Informazio eta Komunikazioen Teknologiaren sektorea manufakturen eta zerbitzuen sektoreek osatzen dute, non haien jardura nagusiak teknologia horien garapena, produkzioa, merkaturatzea eta erabilera intentsiboarekin zerikusia duen (Eustat).

IKT sektorean barnean mota desberdinetako enpresak aurkitu daitezke, esaterako, ekoizteaz arduratzen direnak, komertzioaz, jardura informatikoaz edota telekomunikazioaz.

Ekoizteaz hitz egiten denean konponente elektroniko, ordenagailu, ekipo periferiko, telekomunikazio ekipo, kontsumorako ekipo elektronikoak eta soporte magnetiko eta optikoak ekoizten dituzten enpresei egiten da erreferentzia.


Komertzioaren barnean IKT zerbitzuetako handizkako enpresak barneratzen dira, halaber, ordenagailu, programa informatiko, ekipo elektroniko eta telekomunikazio ekipoak eta hauen osagaiak saltzen dituztenak.

Jardura informatikoen barnean informatika eta teknologia informatikoarekin lotutako jarduerak barneratzen dira, esaterako, informatika kontsultak, komunikazio ekipo, ordenagailu eta ekipo periferikoen konponketak, baliabide informatikoen gestioa, hosting eta webgune-en edizioa.

Azkenik, telekomunikazioen taldean, kable bidezko eta kable gabeko telekomunikazioetan, satellite bidezko telekomunikazioetan eta Telekomunikazio jardueretan jarduten duten enpresak barneratzen dira (ONTSI,2018).

IKT-aren sektorea Espainian aztertzeko garaian, ONTSI-k (Observatorio nacional de las telecomunicaciones y de la sociedad de la información) hainbat adierazle aztertu ditu, besteak beste, sektoreko enpresa kopurua, negozio-zifrak, langile kopurua eta sektoreko inbertsioa. Jarraian, adierazle hauen 2012 urtetik 2017 urtera jasandako garapen edo eboluzioa aztertuko da.

1. irudia: IKT sektoreko enpresa kopurua.




Iturria: Lanketa propioa, datuak ONTSI 2018

Azken bost urteetan enpresa kopurua nabarmenki igo dela ikusi daiteke, 4.699 enpresa gehiago egonik. Sektoreko enpresa gehienak zerbitzuetara zuzendutakoak dira, urtetik urtera %95-%96 arlo honetakoak baitira. Zerbitzuetara eta fabrikaziora esleitzen diren enpresa guztiak kontuan izanik, enpresa kopuruaren igoerak %3,4tik %5,5era bitartekoak izan dira, portzentaje handiena 2013. urtetik 2014. urtera izan delarik eta txikiena, berriz, 2016. urtetik 2017. urte bitartean.

ONTSI (2018)ren arabera, enpresa hauen kokapenari dagokionez, %54a Katalunia eta Madril-en dago kokatua, aldiz, Euskal Herrian enpresa guztien %4a dago.


2. irudia: IKT sektoreko negozio zifra.



Iturria: Lanketa propioa, datuak ONTSI 2018

Negozio zifrari dagokionez, 2016. urtetik 2017. urtera %1,2ko igoera izan du, azken urte honetan negozio zifra 87,627 milioi eurokoa izanik. Datu interesgarri bezala, urtetik urtera sektoreko enpresa kopurua handitu arren, aipatu daiteke negozio zifrak ez duela beti gora egin, 2012-2013 urte bitartean, negozio zifra %3,1ean jaitsi baitzen. Hala eta guztiz ere, 2013tik aurrera gora egiten du, gorakada handiena 2013-2014 urte artean izanik (%2,1).


3. irudia: IKT sektoreko langile kopurua.



Iturria: Lanketa propioa, datuak ONTSI 2018

Lanaren kasuan, 2017. urtean azken sei urtetako zifrarik hoberena zuen, 391.001 langile, 2016. urtetik %6,3ko igoera edukiz. Hala ere, aipatzekoa da, negozio zifraren kasuan bezala, 2012-2013 urte bitartean IKT sektoreko langile kopurua gutxitu egin zela %1,1ean.

4. irudia: IKT sektoreko inbertsioa.



Iturria: Lanketa propioa, datuak ONTSI 2018


Aldiz, inbertsioaren kasuan 2016. urtetik 2017. urtera %0,02an jaisten da, 15.195 milioi euroko inbertsioa utziz. Hala eta guztiz ere, inbertsio hau, 2016koarekin batera azken sei urtetako inbertsio handienetakoa da. Negozio zifraren eta langileen kopuruaren kasuan bezala, inbertsioak ere 2012-2013 urte bitartean %0,1eko beherakada gertatu zen, eta 2014 urtetik 2015. urtera, berriz, IKT-aren sektorean egindako inbertsioa %19,2an handitu zen.

2.5. IKT-aren erabilera Espainiako etxeetan

IKT sektoreko datuez gain, INE-k (Instituto Nacional de Estadística) Espainiako etxeetan dauden IKT elementuen eta hauen erabileraren inguruko inkestak egin ditu, 2017 eta 2018 urteetan.

Honako irudi honetan, azken bi urteetan Espainian gehien erabilitako IKT ekipamenduak agertzen dira.

5. irudia: IKT gailuak Espainiako etxeetan.



Iturria: Lanketa propioa, datuak INE 2018

Gehien erabilitako ekipamentua, telebista da, 2018. urtean populazioaren %99,1-ak erabiltzen duelarik eta ehuneko hau aurreko urtearekiko %0,1 jaitsi delarik, baina aipatzekoa da, ehunekoa oso altua dela. Jarraian gehien erabiltzen den gailua,

mugikorra da, 2018. urtean populazioaren %98ak erabiltzen duelarik eta 2017. urtearekiko %0,6 goera izan duelarik. Telefono finkoari dagokionez, 2018. urtean %75,8k erabiltzen du, aurreko urtean baino %1,8 erabiltzaile gutxiagok. Tabletaren kasuan, bi urte hauen artean %2,1ko gorakada egon da. E-book edo liburu elektronikoen kasuan ere, %1,2ko goraka egon dela erreparatu daiteke. Blue ray, DVD, Mp3, MP4 eta iratiaren kasuan, 2017. urtetik 2018. urtera gailu hauen erabilpenean beherakadak eman dira, beherakada hauek, %3,2, %1,8 eta %0,8 direlarik hurrenez hurren. Musika ekipoen kasuan, berriz, 2018. urtean %1,3ko jaitsiera jasan da 2017. urtearekiko. Bideoaren kasuan ere, %1,7-ko jaitsiera egon da. Azkenik, Internetaren kasuan, jatorri urtearekiko %3ko igoera izan du, hau da, bere erabilera handia izateaz gain, joera gorakorra du.

Beraz, 2018. urtean Espainian gehien erabiltzen diren IKT gailuak, telebista eta mugikorra dira, ia erabiltzaile guztiek erabiltzen dituztelarik, baina aipatzekoa da ere, Internetaren erabileraren portzentajea, ia %86,4koa baita.

Hori kontuan izan da, jarraio atalean Internet eta mugikorraren erabilera aztertuko da Espainiako etxebizitzetan, izan ere, gailu hauen erabilera altua izateaz gain, urtetik urtera izandako hazkundea gorakorra dutelako.


3. Internet

Internet hitza ingelesetik eratorria da eta irismen globala duen sare informatiko deszentralizatua esan nahi du. Konexio mota desberdinen bidez interkonektatuko sare informatikoen sistema da, zerbitzu eta baliabide desberdinak eskaintzen dituena, esaterako plataforma digitaletako sarbidea (Internet, 2018).

Internetaren sorrera 1983. urtean eman zen eta urteak aurrera joan ahala garatzen joan da, HTML, HTTP eta Web Browser sortuz. Geroago, World Wide Web sortu da, hau, denbora gutxian nabarmen garatzen joan da.

Internetarekin batera, sare sozial desberdinak garatzen joan dira. 2003. urtean LinkedIn, 2004. urtean Facebook, 2005. urtean Youtube eta 2006. urtean Twitter (Bahillo, 2019).

Atal honetan, gaur egun, Internet-aren erabilera nolakoa den aztertuko da Espainiako etxeetan. Horretarako, INE (Instituto Nacional de España) datu-basean aurkitu daitekeen zenbait datu aztertuz.

6. irudia: Internet konexioa duten etxebizitzak.


Iturria: Lanketa propioa, datuak INE 2018

Internet konexioari dagokionez, 2018. urtean Espainiako etxeen %86,4ak zuen sarbidea sarera. Azken zortzi urteetan, Internetera sarbidea duten etxebizitzak kopurua nabarmenki handitu da. Zifrei dagokionez, azken zortzi urteetan %28,6ean handitu da internet konexioa duten etxebizitzak kopurua. Azkenik, banda zabalaren kasuan ere, 2018. urtean %86,1 etxebizitzek zuten banda zabal bidezko konexioa. Internetaren kasuan bezala, azken zortzi urteetan hazkunde nabarmena egon da. Zifrei dagokionez, azken zortzi urteetan %30an hazi da, nahiz eta Interneten kasuan baino hazkunde handiagoa izan, Internet konexioa duten etxebizitzak kopurua %0,5 handiagoa da.

Internet-aren erabilera gorakorra kontuan izanik, interesgarria litzateke bere erabileraren ezaugarriak aztertzea, adibidez, adin desberdinetako jendearen erabilera eta egindako jarduerak.

Adinari dagokionez (ikusi 7. irudia), urteko azken hiru hilabeteetako 16-74 urteko erabiltzaileen erabilera kontuan hartuz, orokorrean joera gorakorra du. Azken 8 urteetan erabilera hau %22,6 igo da, 2018. urtean erabiltzaileen %86,1ek azken hiru hilabeteetan Internetera erabili duelarik. Asteroko erabilerari dagokionez ere, joera gorakorra du. Zortzi urteetan, erabilera %24,8 igo da, azken urtean erabiltzaileen %82,5ak erabiltzen duelarik Internet-a astero.

7. irudia: Internet erabilera 16-74 urteko pertsonen artean.



Iturria: Lanketa propioa, datuak INE 2018

1. taula: Interneten adingabe erabiltzaileak.


	Interneten erabilera
Guztira	%92,8
Generoa	
Gizona	%92,5
Emakumea	%93,2
Adina	
10 urte	%85,6
11 urte	%86,3
12 urte	%92,4
13 urte	%96,2
14 urte	%97,0
15 urte	%98,7

Iturria: Lanketa propioa, datuak INE 2018

Adingabekoen artean, berriz, 2018. urtean %92,8k egiten du Internetaren erabilpena. Eta 10-15 urte tarteari dagokionez, adinak gora egin ahala Internetaren erabilpena handiagoa da. Aipagarria da, adibidez, 15 urteko adin gabeen %98,7ak erabiltzen duela Internet-a. Generoari dagokionez, emakumeen %93,2ak erabiltzen du eta gizonezkoen kasuan berriz, %92,5ak.

Internet-aren erabilerari dagokionez, 2018. urteko datuen arabera, gehiengoak, mugikorra etxe/lanaz kanpo erabiltzen du Internet-era konektatzeko erabiltzen duen arren, aipatzekoak dira ere, zerbitzu edo ondasunen inguruan informazioa bilatzea, mezu elektronikoak bidali nahiz jasotzea, bideoak ikustea gero elkarbanatzeko, sare sozialak erabiltzeko eta osasunaren inguruan informazioa bilatzeko.

8. irudia: Internet erabiltzaileek egindako jarduerak sexuaren arabera banatuta.



Iturria: Lanketa propioa, datuak INE 2018

Irudi honetan Internet bidez egiten diren jarduerak desberdinak azaltzen dira sexuaren arabera banatuta. Emakumeen kasuan gehien egiten diren jarduerak nagusiak, mugikorra bidez etxe/lanaz kanpo Internetera konektatzea, zerbitzu eta ondasunen inguruko informazioa bilatzea eta mezu elektronikoak bidali nahiz jasotzea dira hurrenez hurren. Gizonezkoen kasuan ere, aurretik aipatutako hiru jarduerak horiek dira gehien egiten dituztenak. Hala ere, zenbait jardueratan badaude desberdintasun handiak generoari dagokionez, esaterako, osasunaren inguruan informazioa bilatzea, mediku zitak APP edo web bidez hartzea, sare sozialak erabiltzea eta Internet bidez deiak egitearen kasuan emakumezkoak gehiago dira gizonezkoak baino. Aldiz, gainerako jardueretan, Administrazioa Publikoarekin harremanak izateko orduan, bideoak ikusi eta elkarbanatzerakoan, enpresa komertzialek eskainitako edota Internet bidezko pelikula nahiz telesailak ikusterakoan, musika entzuterakoan eta beste zenbait jardueretan gizonezkoen portzentajeak altuagoak dira emakumezkoenak baino. Orokorrean, gutxien egiten den jarduerak, ondasun edo zerbitzu bat saltzearena da, gizonezkoen %14,8ak eta emakumezkoen %11,4ak egin dutelarik 2018. urtean.

Aipatu bezala, orokorrean gehien egiten diren jarduerak, batetik, mugikorra erabiltzea da Internetera konektatzeko lanetik edota etxetik kanpo, emakumeen kasuan %93ak egiten dutelarik eta gizonezkoen kasuan %92,3ak. Bestetik, ondasun eta zerbitzuen inguruan informazioa bilatzea, bi generoek jarduerak hau antzeko egiten dutelarik. Azkenik, korreo elektronikoa bidali eta jaso eta bideoak ikusi gero elkarbanatzeko, gizonezkoek gehiago egiten dute, nahiz eta bi generoen artean ez dagoen diferentzia handirik.

4. Mugikorra

Mugikorraren sorkuntza 1973. urtean dagoela esan daiteke, kontsumo masiboko konpainia elektronikoak, lehen telefono mugikorra merkaturatzen duenean. (Tecnologia&Informatica)

Martin Cooper-ek umetatik zuen buruan eskuko telefonoaren ideia eta lehen Motorolako ekipoaren laguntzaz aurrera eraman zuen bere ideia. Momentu horretan sortutako mugikorra Motorola DynaTac 8000X da eta 2 kg baino gehiago pisatzen ditu. New York-eko kalean lehen aldiz mugikor prototipo batekin deia egitean, Cooper-ek ez zuen imajinatuko horrelako arrakasta izango zuenik (BBC, 2010). Izan ere, gaur egun merkaturatzen dauden mugikor mota guztiak kalkulatzeko ezinezkoa da munduan gehien erabilitako gailu elektronikoa baita. Edozein herri edo herrialdeetan ia ezinezkoa da mugikor edo smartphone bat eskuan ez duen pertsona bat ikustea. Izugarria da, gizartean barneratzeko azkartasuna, izan ere, egin behar eta jarduera desberdinak egiteaz gain, barneratzen dituen funtzio desberdinei esker, bizitza estiloa hobetu dezake, produktibitatea handituz eta denbora murriztuz (Tecnologia&Informatica). Hala ere, mugikorretatik salto ikaragarria egin da Smartphonetara, "mugikor azkar" bezala ezagutzen dena. Bere jatorria 1992. urtean dago, IBM Simon Comdex-en aurkezten denean. International Business Machines Corporation eta Bell South-en arteko joint venture-ren artean sortua izan da. Simon deritzon honek pantaila taktik baten bidez, hau da botoirik gabe, agenda eta fax bezalako eguneroko funtzioak eskaintzen ditu. BellSouth-en bidez komertzialatua izan zen eta gaur egun historiako lehen smartphone-a bezala ezagutzen da. Gailu hau hasiera batean arrarotzat hartu arren, gaur egun, edozeinen eskura dago (Neoteo, 2012).

Smartphonen merkaturako benetako erreboluzioa 2007. urtean iritsi zen Steve Jobs-ek lehen Iphone-a merkaturatu zuenean. Iphone honek, pantaila taktikaz gain, 2 megapixelean kamera, musika erreproduzitzailerak eta internet zerbitzuak ditu, hala nola, korreo elektronikoa eta wifi-a. Garai honetan ordea, modelo honek ez dauka 3G konektagarritasuna eta AppStore-a. Applen aurrerapenei esker, 2008. urtean Android sistema operatibodun lehen mugikorra merkaturatu zen HTC Dream deiturikoa. Mugikor honen ezaugarrien artean pantaila taktikoa, 3,2 megapixelean kamera, 3G eta Wifi-rako sarbidea du. Gainera sarbide zuzena du Google-ko aplikazioetara, esaterako, Gmail eta Google Maps-era (24horas, 2004).


Dientria (2018)ren arabera, mundu mailan 2018. urtean 5.135 mila milioi erabiltzaile daude, hau da, munduko biztanleen %68ak mugikor baten jabe zen. Internetera sarbidea zuten erabiltzaileak 4.021 mila milioi ziren, hau da, biztanle guztien %53a.

Espainiaren kasuan, munduko rankinean seigarren postuan dago mugikorraren barneraketari dagokionez, biztanleriaren %80a izanik mugikorraren erabiltzaile. Rankinean lehen postuan Hego Korea (%84), Hong Kong eta Italia (%83) daude. Eta mugikorra da Internetera konektatzeko gehien erabiltzen den gailua, espainiarren %97ak erabiltzen du horretarako (Ditrendia, 2018).

Espainiako mugikorra duten etxebizitzak alderatzen badira, mugikorrik ez duten etxebizitzekin, mugikor bat duten etxebizitzak, ia gehiengoa direla ikus daiteke.


Segidako irudian ikusi daitekeenez, 2018. urtean, adibidez, mugikorra zuten etxebizitzak, etxebizitza guztien %98a da.

9. irudia: mugikorra duten etxebizitzak, mugikor gabeko etxebizitzaren gain.



Iturria: Lanketa propioa, datuak Ditrendia 2018

Azken urteetan mugikorrek izan duten barneraketaren eboluzioa aztertzen bada, ikus daiteke 2012tik aurrera mugikor eta internet erabiltzaileak Espainian handituz doazela, (ikusi 10. irudia) baina mugikorraren erabiltzaileen igoera, internet erabiltzaileenaren gainetik handitzen da (ikusi 7. irudia) 2017. urtean, adibidez, 18-24 urte bitarteko guztiak (%100) ziren mugikorraren erabiltzaileak. 25-44 urte bitartekoak %98-%99 inguru ziren erabiltzaileak, 45-65 urte bitartekoak %93 eta 65 urtetik gorakoak %90. Beraz, esan daiteke adin tarte guztietan erabiltzaile kopurua oso altua dela (ikusi 10. irudia). 2003. urtean portzentaje hau %73,3koa bazen, 2018. urtean %98koa da; hau da, ia etxebizitza guztietan dago mugikor bat (ikusi 9. irudia).

10. irudia: mugikor erabiltzaileak.

Iturria: Lanketa propioa, datuak Ditrendia 2018

Dientria (2018)ren arabera, mugikorra Espainiako lehen gailua da eguneroko jardura desberdinak egiteko, esaterako, berehalako mezuak edo online bideoak ikusteko. %32ak mugikorra erabiltzen du beste jardura bat egiten ari den bitartean, horietatik %51a 18 eta 24 urte bitarteko gazteak direlarik. Erabiltzaileen %87ak mugikorra telebista ikusi bitartean erabiltzen du, aurreko urtearekiko %6 igotzen delarik. “Secondscreen” bezala egiten diren jardura nagusiak, txateatzea (%58), korreo elektronikoa kontsultatu (%55) edo sare sozialak erabili (%52) (Ditrendia, 2018).

Konexio datuei dagokienez, erabiltzaileek datu gehien gastatzen duten jardura bideoak ikustea da, hau %55 batek egiten duelarik. Bideoak geroz eta gehiago ikustearen arrazoiak, erresoluzio handiko pantailen eta streaming-eko bideoen plataforma berrien gehikuntza da. Gainera, 2023. Urtean bideoak mugikorreko datuen %75a suposatuko dutela espero da (Ditrendia, 2018).

Mugikorraren erabileraz hitz egiteaz gain, garrantzitsua da jakitea erabilera hau zein eremutan ematen den. Espainiar guztiek mugikorra egun guztian zehar erabiltzen dute, eta kontsumitzaileen %46ak denbora guztian mugikorra gehiegi erabiltzen dutela uste dute. Mugikorra gehien erabiltzen den lekua etxea da, bertan denboraren %80a erabiltzen delarik. Aipatzekoa da, mugikorrak askotan lana eta denbora pertsonalaren arteko denborak nahasten dituela. Espainiarren %39 batek mugikorra lanean erabiltzen du, gai pertsonaletarako eta aldiz, %30k mugikorra lanerako erabiltzen du, lan orduetatik kanpo (Ditrendia, 2018). Mugikorra denbora guztian erabiltzen duten erabiltzaileak %46a izanda ere, %18ak asteburuetan erabiltzen omen du gehiegi eta %16ak gauetan. Erabiltzaileen %16ak mugikorra gehiegi erabiltzen omen du familiarekin dagoenean, eta, %14ak berriz, lagunekin dagoenean (Deloitte, 2017).

Mugikorraren erabiltzaile kopurua handitzeaz gain, alde batetik egunean zehar geroz eta gehiago erabiltzen da. 18-24 urte bitarteko gazteek, adibidez, %49ak mugikorraren erabilera intentsiboa egiten du, gutxi gora behera egunean lau ordu baino gehiago. 65 urte baino gehiagokoen %54ak, berriz, egunean ordu bat baino gutxiago erabiltzen du (Ditrendia, 2018). 2. taulan agertzen den moduan, mugikorraren erabileraren batz besteko denbora 2 ordu eta 27 minutukoa da. Aipatzekoa da, erabiltzaileen %21ak lau ordu baino gehiago erabiltzen duela egunero eta %26ak ordu bat baino gutxiago. Erabiltzaileen gehiengoak berriz, ordu bat eta biren artean erabiltzen du, erabiltzaile hauen kopurua %27 izanik.

2. taula: eguneko kontsumo denbora.

Bataz beste	2h 27 min
>4 ordu	%21
3-4 ordu	%10
2-3 ordu	%16
1-2 ordu	%27
<1 ordu	%26

Iturria: Lanketa propioa, datuak Ditrendia 2018

Ildo honetan, mugikorraren gehiegizko erabilera puntu oso garrantzitsua da. Deloittek 2017. urtean egindako galdetegi batean, erabiltzaileen %41a saiatzen da bere erabilera mugatzen. Horietatik %25ak saiatzeaz gain, lortzen du bere erabilera gutxitzen, aldiz %16ak saiatu arren ez du lortzen. %17ak ez du ezer egiten baina gustatuko litzaioke bere erabilera gutxitzea. %39ak aldiz, ezer ez egiteaz gain, ez dauka asmorik egiteko. Mugikorra gehien erabiltzen dutela uste duten erabiltzaile gehienak 18-24 urte bitartekoak dira (%62), jarraian, 25-34 urte bitartekoak (%59) eta 35-44 urte bitartekoak (%50). Mugikorra gehiegi erabiltzen dutela uste dutenen artean portzentaje txikiena berriz 65-75 urte bitartean daukagu. Beraz, esan daiteke, adinak gora egin ahala, mugikorra gutxiago erabili ohi dela (Deloitte, 2017).

Adin txikikoetan, berriz, geroz eta adingabe gehiago bihurtzen ari dira mugikorraren erabiltzaile, eta gainera, geroz eta gazteago hasten dira gailu hau erabiltzen. Jarraian dagoen 3. taulan Espainian 2018. urtean 10-15 urte bitarteko gazteen erabileraren inguruko datuak agertzen dira.

3. taula: mugikorraren adingabe erabiltzaileak.

	Mugikorra
Guztira	%69,8
Generoa	
Gizona	%68,2
Emakumea	%71,6
Adina	
10 urte	%26,2
11 urte	%41,1
12 urte	%75,1
13 urte	%86,2
14 urte	%91,2
15 urte	%94,8

Iturria: Lanketa propioa, datuak INE 2018

3 .taula honetan ikus daitekeenez, 10-15 urte bitarteko gazteen %69,8a mugikorraren baten jabe dela adierazten du. Erabiltzaile hauen gehiengoa mutila da, %71,6a, nahiz eta nesken ehunekoa baxuagoa izan, %68,2, bien arteko diferentzia ez da oso nabarmena. Adinean zentratuz, gehien erabiltzen duten erabiltzaileak 15 urtekoak dira, gazte guztien %94,8 izanik, jarraian 14 urtekoak %91,2 direlarik. Erabiltzaile gutxien dituen adina 10 urtekoak dira, guztien %26,2ak erabiltzen dutelarik mugikorra. Beraz, mugikorra gehien erabiltzen 12 urtetik aurrera hasten direla esan daiteke, adin horretatik aurrera handitzen baita mugikorra duten erabiltzaileen ehunekoa. Beraz, esan daiteke, adinak gora egin ahala, erabiltzaileen ehunekoa ere handitu egiten dela.

Garbi geratzen da, mugikorra egunean zehar asko erabiltzen dela eta erabilera hau urteetan zehar handitzen ari dela. Sarritan entzun ohi izan adikzio hitza mugikorrataz hitz egitean, baina existitzen ote da menpekotasun edo adikzio hori?

Rastreator-ek 2017. urtean egindako "IV Estudio de Comparación Online hacia el Ahorro Inteligente" ikerketaren arabera, lau espainiarretatik hiruk ezin dute mugikorraren bizi. Ikerketa honen arabera, mugikorraren adikzioa handitu eginda %10 eta erabilera oker horrek bere ondorioak ditu. Espainiako mugikorraren adikzioak muga gainditu du, herritarren %44ak mugikorrari erreparatzen dio, lagunekin, familiarekin edo bikotekidearekin dagoenean. Mugikorraren gehiegizko erabilerak, muskuluetako ezinegona eta antsietatea sortzen ditu eta gainera, bizkar hezuraren desbideratzea eta lepoa mugitzeko zailtasunak ere ekar ditzake.

Efektu hauez gain, mugikorrak tendinitis eta lumbago edo kontrakturak sor ditzake, ikusmen arazoez gain. Izan ere, espainiarrek ordu asko pasatzen dituzte mugikorraren aurrean forma aktiboan. Generoari erreferentzia eginez, emakumeak mugikorra gehiago erabiltzen dute gizonezkoek baino, baina diferentzia ez da handia, emakumezkoen kasuan %78,5a ez da mugikorretik banatzen, aldiz gizonezkoen kasuan ehuneko hau %71,4koa da. Ikerketa honen arabera, erabiltzaileen %16,6ak mugikorra

begiratzen du gidatzen doan bitartean, zifra hau %3an handitu delarik 2016. urtearekiko. Gainera, %52,2 batek baieztatzen du, egunaren hasieran eta amaieran egunero begiratzen dutela mugikorra. Aldiz, gidatzerakoan gizonezkoen mugikorra gehiago begiratzen dute emakumezkoek baino, gizonezkoak %19,2 direlarik eta emakumezkoak berriz %13,9. Gazteen artean adikzioa nabarmena dela esan daiteke, izan ere, 26-34 urte bitarteko gazteen %80,9ak baieztatzen du, ezin duela mugikor gabe bizi (Venegas, 2018).

Eta zertarako erabiltzen da mugikorra?

Mugikor bidez gehien egiten den jardueretako bat sare sozialak erabiltzea da. IAB Spain-ek urtero sare sozialen inguruko ikerketa bat egiten du.

Erabiltzaileei dagokionez eta 2018. urteko datuak aztertuz, 16-65 urte bitarteko %85ak erabiltzen dituzte sare sozialak, hau da, 25,5 milioi erabiltzaile daude Espainian. Erabiltzaile hauen %51a emakumezkoa da eta %49 aldiz gizonezkoa. Adinari dagokionez, erabiltzaileen %31, 16-30 urte bitartekoa da, %39a 31-45 urte bitartekoa eta %30a berriz, 46-65 urte bitartekoa. Ikasketa mailari dagokionez, sare sozialen erabiltzaileen %3ak lehen mailako ikasketak ditu, %40ak bigarren mailakoak, %46 unibertsitate ikasketak eta %10ak berriz, unibertsitate ondorengo ikasketak. Jarduerari dagokionez, erabiltzaileen %74ak lana egiten du, %9ak ikasi, %9a langabezian dago, %5a berriz, etxeko lanak egiten ditu eta azkenik, %3a pentsionista da.

Erabiltzaileei sare sozialen inguruan galdetzean gehienetan hiru-lau sare sozial desberdin aipatu ohi dituzte. Baina, erabiltzaileak batz bestea 8,7 sare sozial identifikatzeko gai da. Gaur egun erabiltzaileek batz bestea 4,7 sare sozial bisitatzen dituzte batera. Erabiltzaileen balorazioari dagokionez, hobekien baloratutako sare soziala Whatsapp da, 8,4 batekin eta batz besteko balorazioa (7,5) baino ia puntu bat gehiagorekin. Jarraian gehien baloratutako sare sozialak, Youtube, Spotify eta Instagram dira, 8,1 eta 7,8 batekin hurrenez hurren.

Sare sozial hauen bidez egindako jarduera nagusia, kontaktuei mezuak bidaltzea da, hau da, txateatzea, erabiltzaileen %66ak egiten duelarik, %59ak, berriz, bideoak ikusi eta musika entzuteko erabili ohi ditu eta %44ak bere kontaktuek zer egiten duten ikusteko

Ikerketa honen arabera, eta orain arte aipatutakoa lotuz, sare sozialetara konektatzeko gehien erabilitako gailua mugikorra da. Izan ere, erabiltzaileen %95ak mugikorra erabiltzen du bere sare sozialetara konektatzeko eta gehien erabilitako ordu tartea 20:30-00:30 da. Hala ere, aipatzekoa da, erabiltzaileen %91ak ordenagailu bidez ere egiten duela konexioa (IAB Spain, 2018).

5. IKT gailuen erabilera Espainiako Autonomia-Erkidego bakoitzean

Estatu mailan IKT-aren kontsumoa aztertu ondoren eta Internet eta mugikorren erabileran sakonduta, aberasgarria da, Espainiako Komunitate Autonomo bakoitzean erabilera hauek nolakoak diren aztertzea. Horretarako INE-k (Instituto Nacional de Estadística) 2018.urtean jasotako datuak aztertuko dira.

Espainian 16.351.015 etxebizitza izanik, horietatik %79,5etan ordenagailu bat dago, %86,4k Internet konexioa dute, %86,1k banda zabaleko konexioa, %75,8k telefono finkoa eta %98k mugikorra.

Autonomia-Erkidegoei erreparatuz, orokorrean, portzentaje hauen azpitik daudenak Andaluzia, Extremadura, Gaztelak, Galizia eta Errioxa dira. Portzentaje horien gainetik daudenen artean nabarmentzekoak dira, batez ere, Zeuta eta Madril.

EAE-ren kasuan, IKT guztietan duen erabileraren portzentajea Espainiako portzentajearen gainetik dago, %84,3k ordenagailua baitute, %89,1k konexioa, %89k banda zabala, %83,3k telefono finkoa eta %98,6k mugikorra. Gainera, IKT guztietako portzentajeak handitik txikienera ordenatuz gero, EAE laugarren postuan aurkeztuko litzateke. Hortaz, IKTren erabilera EAEn oso garrantzitsua dela ondorioztatzen da.

4. taula: Espainiako AEko etxebizitzetan dituzten IKTak.

	Etxebizitzak guztira	Ordenagailua duten etxebizitzak	Internet konexioa duten etxebizitzak	Banda zabaleko konexioa duten etxebizitzak	Telefono finkoa duten etxebizitzak	Mugikorra duten etxebizitzak
Guztira	16.351.015	%79,5	%86,4	%86,1	%75,8	%98
Andaluzia	2.878.895	%74,4	%83,7	%83,5	%66,8	%97,9
Aragoi	470.003	%93,2	%88,7	%88,4	%83,9	%98,1
Asturias	388.187	%78,2	%85,9	%85,1	%74,6	%98,6
Balearr uharteak	402.916	%83,7	%90,8	%90,6	%83,7	%98
Kanariar uharteak	770.182	%77,9	%87,4	%86,8	%79,8	%96,8
Kantabria	206.836	%78,9	%83	%82,4	%79,8	%98,9
Gaztela eta Leon	843.359	%76,1	%82,3	%82,2	%77,7	%97,6
Gaztela-Mantxa	690.713	%74,8	%80,9	%80,8	%69,9	%97,4
Katalunia	2.610.775	%82,2	%87,7	%87,2	%81,8	%97,7
Valentzia	1.773.148	%79,9	%86,8	%86,7	%66,3	%98,6
Extremadura	373.036	%72,1	%78,6	%78,4	%67	%97,4
Galizia	954.183	%74,3	%82,6	%82,1	%74,5	%97,9
Madril	2.324.095	%86,5	%91,5	%91,4	%87	%98,5
Murtzia	482.072	%77,1	%87,4	%87,4	%54,1	%98,4
Naparroa	222.455	%84,1	%87,2	%86,6	%84,1	%99,3
EAE	794.788	%84,3	%89,1	%89	%83,3	%98,6
Errioxa	113.261	%76,3	%82,5	%82,2	%76,2	%97,2
Zeuta	19.815	%84,9	%91,7	%91,7	%84,4	%100
Melilla	29.295	%82,5	%88,9	%88,9	%70,7	%98,2

Iturria: Lanketa propioa, datuak INE 2018

Espanian 16.351.015 etxebizitza zeuden, horietatik %79,5ek ordenagailu bat dute etxean. Ordenagailu bat duten etxebizitza gehien dauden Espainiako Autonomia Erkidegoa, Aragoi da, etxebizitza guztien %93,2ak dutelarik. Internet konexioa duten etxebizitza gehien, berriz, Zeutan daude, etxebizitzen %91,7ak Internet konexioa dutelarik. Banda zabal bidezko konexioa duten etxebizitzen kasuan ere, Zeutako etxebizitzak dira banda zabal bidezko konexio gehien dituzten etxebizitzak. Azkenik, telefono finkoaren eta mugikorraren kasuan ere, Zeutan daude bi gailu hauek dituzten etxebizitzak, telefono finkoaren kasuan etxebizitzen gehiengoa dago, %84,4ak dutelarik eta mugikorraren kasuan, etxebizitza guztiek dutelarik mugikor bat.

EAEren kasuan, etxebizitzen %84,3ak ordenagailu bat du, Internetaren kasuan, etxebizitzen %89,1ak dute konexioa eta banda zabalaren kasuan berriz, %89ak. Azkenik, telefono finko eta mugikorraren kasuan, etxebizitzen %83,3ak telefono finkoa dute etxean eta %98,6ak berriz, mugikorra.

6. Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) kasua

Espaniako azterketa egin ondoren, EAE-ko egoera aztertzeari ekingo diot, orain arte aztertutako tresna hauen erabilera eta kontsumoa ezagutzeko asmoz.

6.1. IKT-aren erabilera EAE-n

Deia egunkarian 2016.urtean Sotillo-k idatzi zuenez, EAEk Estatuko batz bestekoa gainditzen du eta hobetzea ezinezko diren mailalara iristen da (Sotillo, 2016).

5. taulan agertzen den moduan, EAE-n gehien erabiltzen den ekipamendua, mugikorra da, erabiltzaile guztien %94,5-ekin, eta gutxien, berriz, ordenagailua. Hiru probintziak bat datoz, gehien erabiltzen den ekipamendua mugikorra baita denetan, eta gutxien erabiltzen dena berriz ordenagailua. Familian zentratuz, argi ikusten da, IKT gehien erabiltzen duten familia mota, seme alabak dituztenak direla, jarraian bakarrik bizi direnak eta azkenik bikotekidearekin bakarrik soilik bizi direnak. Familia mota guztietan ere, gehien erabiltzen den ekipamentua mugikorra da. Seme alabak dituzten familien kasuan aipatzekoa da, taulan biltzen diren ekipamendu guztiak ehuneko %90etik gora erabiltzen dituztela. Aldiz, beste bi familia motetan alde nabarmenarekin gutxien erabiltzen diren ekipamenduak ordenagailua eta e-maila dira.

5. taula: IKT ekipamentuak, probintzia eta familia motaren arabera.

	EAE	Lurralde historikoa			Familia mota		
		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Seme-alabekin	Bikotekidearekin bakarrik	Bakarrik bizi diren pertsonak
Ordenagailua	%69,5	%71,6	%68,3	%70,4	%90,9	%56	%46,5
Internet	%79,9	%83,3	%78,5	%80,6	%96,7	%68,6	%62,5
Mugikorra	%94,5	%95	%94,1	%95	%99,2	%94,6	%87,4
E-mail	%72	%73,8	%70,7	%73,3	%92,9	%55,4	%52,1

Iturria: Lanketa propioa, datuak Eustat 2018.

EAE-ko 15 urte baino gehiagoko biztanleriaren datuak kontuan hartzen baditugu, (ikusi 6. taula) orokorki ikusi daiteke gehien erabiltzen den ekipamentua mugikorra dela, guztiaren %96,7 delarik, segidan Interneti kokatuko litzateke. %86,6rekin gutxien erabiltzen den ekipamentua, berriz, parabolikoa eta bideoa izango lirateke, %6,6 eta %8,9arekin hurrenez hurren. Probintzien kasuan, IKT erabiltzen duten 15 urte baino gehiagoko biztanle gehien Bizkaitarrak dira, alde nabarmenarekin, jarraian Gipuzkoa kokatzen da eta azkenik, beste bien aldean erabiltzaile gutxien dituen Araba. Probintzien kasuan ere, gehien erabiltzen den ekipamentua mugikorra da, hiruretan portzentajea antzekoa izanik. Internetaren kasuan ere, oso erabilia da, nahiz eta portzentajea mugikorrarena baino baxuagoa izan, hiru probintzietan nahiko erabilia da. Gutxien erabiltzen diren IKT ekipamentuak parabolikoa eta bideoa dira.

6. taula: EAE-ko 15 urte baino gehiagoko biztanleak IKT ekipamenduaren eta probintziaren arabera.

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Ordenagailua	%77,3	%78,3	%77	%77,3
Internet	%86,6	%88,9	%85,9	%86,6
Telefono mugikorra	%96,7	%96,8	%96,6	%96,9
Posta elektronikoa	%79,8	%80,7	%79,2	%80,3
Parabolikoa	%6,6	%6,4	%7,5	%5,3
Ordainpeko telebista	%29,8	%26,3	%29,3	%32,2
Kable bidezko telebista	%31,2	%27,1	%30,7	%33,9
Internet bidezko TB	%22,2	%25	%21,1	%22,7
Bideoa	%8,9	%9,7	%9,2	%8,2
TB grabatzeko diskoa	%15,7	%18,2	%15,5	%14,8

Iturria: Lanketa propioa, datuak Eustat 2018.

Beraz, ez dago zalantzarik, Espainiako kasuan bezala, EAE-n ere, gaur egun gehien erabiltzen diren ekipamentuak mugikorra eta Interneta direla. Probintziei erreferentzia eginez, IKT ekipamentu gehien erabiltzen dituen probintzia Bizkaia da nabarmen, baina mugikorraren eta Internetaren kasuan hiru probintzietan erabilera antzekoa da. Beraz, jarraian, bi IKT ekipamentu hauek aztertuko ditugu, hau da, Internet eta mugikorra.

6.2. Interneten erabilera EAE-n

Internet-ari dagokionez, Eustatek EAEko etxeetan izandako Interneten erabilera eta kontsumoari buruzko datuak biltzen ditu eta datu hauei erreferentzia eginez, EAEn Interneten erabileraren azterketa gauzatuko da atal honetan, halaber, zenbatek duten Internet, adina, generoa, zertarako erabiltzen duten, zein hizkuntzatan, non, e.a.

7. taulak 2007-2018 urteetan EAEko 16-74 urte bitarte erabiltzaileak biltzen ditu Internet konexioaren arabera. Urte hauetan zehar etxeetako Internet konexioaren kopurua handituz joan da eremu guztietan. Lehen errenkadan Europar Batasuneko datuak ditugu, Espainia eta EAE datu horien azpitik daude, hau da, proportzionalki etxe gutxiagoetan dago Internet konexioa. Baina aipatzekoa da, EAEko erabiltzaile gehiagok dutela Internet konexioa Espainiako baino. Probintziei dagokienez, azken 11 urteetan, Internet etxean duten familien kopurua bikoiztu egiten da. Orokorrean, EAE-ko datuekin probintziak alderatzen badira, daturik altuenak Gipuzkoak ditu erregistraturik, nahiz eta azken urtean Arabako familiak diren Internet konexioa duten gehiengoak.

7. taula: EAE-ko familiak 16-74 urte bitarteko pertsonak dituztenak eta Internet konexioa dutenak.

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Europar Batasuna	%55	%60	%66	%70	%73	%76	%79	%81	%83	%85	%87	
Espainia	%43	%50	%53	%58	%63	%67	%70	%74	%79	%82	%83	
EAE	%49	%54	%59	%62	%65	%67	%72	%76	%81	%85	%89	%90
Araba	%50	%54	%57	%61	%63	%62	%70	%75	%79	%83	%89	%94
Bizkaia	%49	%54	%59	%62	%66	%67	%73	%76	%81	%84	%88	%90
Gipuzkoa	%49	%56	%61	%64	%66	%69	%73	%77	%81	%86	%90	%90

Iturria: Lanketa propioa, datuak Eustat 2018.

Internetaren erabilera adinarekiko, sexuarekiko eta jarduerarekiko aztertuz, hurrengo taula osa daiteke 2018ko datuekin eta 15 urte baino gehiagoko biztanleria kontuan hartuz (ikusi 8. taula).

8. taula: EAEko 15 urte eta gehiagoko Internet erabiltzaileak.

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira (milaka)	1.461,60	221,8	763,8	475,9
Guztira (%)	%78,7	%81,2	%78,1	%78,7
Sexua				
Gizonezkoak	%81,2	%83,1	%81,3	%80,3
Emakumezkoak	%76,4	%79,3	%75,1	%77,3
Adina				
15-24	%99,4	%99,3	%99,5	%99,3
25-34	%98,8	%100,0	%99,6	%97,0
35-44	%96,9	%98,6	%96,2	%97,2
45 eta gehiago	%65,8	%68,0	%65,3	%65,8
Jarduerarekiko erlazioa				
Ikasten	%99,1	%98,2	%99,2	%99,3
Lanean	%96,2	%96,4	%96,5	%95,7
Langabezian	%54,5	%58,7	%54,0	%53,3

Iturria: Lanketa propioa, datuak Eustat 2018.

Taula honetan, EAEko 15 urte baino gehiagoko Internet erabiltzeak biltzen dira 2018. urtean, sexuaren, adinaren eta egiten duten jardueraren arabera. Guztira 1461,6 mila erabiltzaile zeuden 2018. urtean EAEn, hauen %16 Arabakoak, %52 Bizkaikoak eta %32 Gipuzkoakoak. Sexuari dagokionez, gizonezkoen %81,2ak erabiltzen du Interneta, eta probintzi desberdinetan ere, portzentajea %80aren inguruan aurkitzen da. Emakumezkoen kasuan, %76,4ak erabiltzen du Interneta EAEn, eta probintzietan ere portzentajea %77-ren inguruan dago. Erabiltzaileen adinari dagokionez, 15-24 eta 25-34 urte bitarteko erabiltzaile ia guztiek erabiltzen dute Interneta, aldiz, 45 urte baino gehiagoko erabiltzaileen %65 inguruk soilik erabiltzen du. 35-44 urte bitarteko erabiltzaile gehienek ere egiten dute tresna honen erabilera. Orokorrean, Internet gehien erabiltzen duten erabiltzaileak ikasten daude, beste erabiltzaile kopuru handi bat berriz, lanean. Internet gutxien erabiltzen dutenak, berriz, langabezian daude.

Baina zertarako eta zenbat erabiltzen da Internet?

9. taulak EAE-ko 15 urte baino gehiagoko Internet erabiltzaileak biltzen ditu, erabilitako zerbitzu eta azken konexioaren iraupenaren arabera. Erabiltzaileak Internet gehiena webgunetan ibili eta informazioa bilatzeko erabiltzen dute, portzentajea probintzia guztietan ia ehuneko ehun izanik. Posta elektronikoaren erabilera ere handia da %80 inguruan. Gutxien erabilitako zerbitzua, fitxategien transferentzia da, Gipuzkoan izanik portzentaje txikiena duena %15,5. Txataren erabilera ere baxua da,

%21 inguruan gutxi gora behera probintzia guztietan. Azkenik, bisitatutako webgunei erreferentzia eginez, gehien bisitatutako webguneak ondasun eta zerbitzuen inguruko informazioa eskaintzen dituztenak dira. Nahiz eta hedabideak, aisialdi zerbitzuak eta banku elektronikoak ere oso bisitatuak izan. Gutxien bisitatuak berriz, museo birtualen eta kontsumitzaileen eskubideen webguneak dira.

9. taula: EAE-ko 15 urte baino gehiagoko Internet erabiltzaileak.

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira (milaka)	1.461,60	221,8	763,8	475,9
Guztira (%)	%78,7	%81,2	%78,1	%78,7
Erabilitako zerbitzuak				
Webean ibiltzea, informazioa bilatzea	%99,6	%99,2	%99,6	%99,7
Posta elektronikoa	%81,4	%82,2	%80,6	%82,3
Fitxategien trasferentzia	%18,5	%19,0	%20,1	%15,5
Txata	%21,3	%22,1	%20,6	%22,0
Bisitatutako WEB motak				
Hedabideak	%65,7	%67,0	%66,5	%64,0
Ondasun eta zerbitzuen infor.	%70,6	%73,6	%69,9	%70,3
Liburutegiak eta dokumentazioak	%32,1	%29,9	%32,5	%32,5
Turismo eta erreserbak	%34,1	%34,9	%34,3	%33,4
Administrazioaren informazioa	%48,3	%52,5	%48,1	%46,7
Aisialdiko zerbitzuak	%54,2	%53,5	%54,6	%54,0
Banku elektronikoak	%54,1	%53,7	%53,7	%54,9
Lana bilatzeko kudeaketak	%13,4	%11,1	%14,8	%12,3
Osasunaren inguruko informazioa	%38,9	%38,3	%39,6	%38,0
Irakaskuntza arautua	%13,5	%12,0	%14,9	%12,0
Museo birtualak	%4,6	%3,0	%4,8	%5,0
Kontsumitzailearen eskubideak	%7,4	%9,8	%6,7	%7,4

Iturria: Lanketa propioa, datuak Eustat 2018.

10. taulan erabiltzaileen sarbide-leku eta nabigatze hizkuntzaren inguruko datuak biltzen dira. Sarbide-lekuari dagokionez, sarbide-leku erabiliena etxea da, nahiz eta, lantokitik eta beste leku batetik ere konektatu ohi diren erabiltzaileak. Erabiltzaile gutxi batzuk ere, ikastetxetik konektatzen dira. Hizkuntzari dagokionez, taulan biltzen diren, erabiltzaileen ia %100ak gazteleraz nabigatzen du. Euskaraz nabigatzen duten erabiltzaile gehien gipuzkoarrak dira, %35,5, bizkaitarrak %21,2 dira eta arabarrak %14,7. Ingelesari dagokionez, erabiltzaileen %18 inguruk nabigatzen du, aipatzekoa arabarren kasua, erabiltzaile gehiagok nabigatzen duela ingelesez, gazteleraz baino.

Frantsesez nabigatzeari dagokionez, ehuneko oso txiki batek egiten du, gipuzkoarrak izanik frantsesez gehien nabigatzen dutenak. Gainerako hizkuntzei dagokionez, proportzionalki ehuneko txiki baten nabigatzen dute.

Non erabiltzen da Internet eta zein hizkuntzatan?

10. taula: EAE-ko 15 urte baino gehiagoko Internet erabiltzaileak.

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira (milaka)	1461,6	221,8	763,8	475,9
Guztira (%)	%78,7	%81,2	%78,1	%78,7
Sarbide-lekua				
Etxetik	%98	%97,1	%97,9	%98,5
Lantokitik	%36,3	%36,6	%35,9	%37,8
Ikastetxetik	%10,5	%10,1	%10,4	%10,7
Beste leku batetik	%38,1	%41,5	%39,4	%34,5
Nabigazio hizkuntza				
Euskara	%24,9	%14,7	%21,2	%35,5
Gaztelera	%98,3	%99,4	%98,8	%96,8
Ingelesa	%18,6	%17,4	%19,4	%17,8
Frantsesa	%2,8	%1,4	%2,3	%4,4
Beste hizkuntzaren bat	%2,8	%2,7	%2,7	%3,1

Iturria: Lanketa propioa, datuak Eustat

Denbora aldetik gehiegi erabiltzen da?

Sarbide gehiena egindako egunari dagokionez, gehienetan, aste guztian zehar, hau da, lanegun edota jaiegunetan, egiten da sarbiderik gehien. Hala ere, laneguna eta jaieguna alderatuz, lanegunetan konexio gehiago egiten direla, jaiegunetan baino. Konexio hauen maiztasunari dagokionez, ia %90a egunero konektatzen da, etengabe nahiz egunean zenbait alditan. Egunean behin konektatzen den erabiltzaile kopurua oso txikia da. Egunero beharrez, aste guztietan konektatzen den erabiltzaile kopurua %9 ingurukoa soilik da. Gutxienez hilean behin konektatzen den erabiltzaileen kopurua oso txikia da probintzia guztietan, %1,5 inguru. Azkenik, hilabete guztietan internet konexioa erabiltzen ez duten erabiltzaileen kopurua ia nulua da. Asteroko konexio denboraren inguruan, esan daiteke, erabiltzaile gehienek astean ordu betetik 5 ordua arte erabiltzen dutela Interneta. Gainera, beste ehuneko altu batek astean 10-20 ordu bitarte eta 20-50 ordu bitarte erabiltzen dute. Astean ordu bat baino gutxiago erabiltzaile gutxi erabiltzen dute, %13ak inguruk soilik. Erabiltzaile gutxi dira, astean

50 ordu baino gehiago erabiltzen dutenak Interneta. Beraz, esan daiteke, erabiltzaile gehienek ordu betetik 50 ordu bitarteko tartean erabiltzen dutela Interneta. Azken konexioaren batz besteko iraupenari dagokionez, erabiltzaileen %40en batz besteko iraupena 15 minututik beherakoa da. %30 batena, 15-30 minutu bitartekoa. Erabiltzaile oso gutxiren azken konexioaren batz besteko iraupena da 2 ordu baino gehiago. Gehien erabilitako zerbitzuak posta elektronikoa, erabiltzaileen %80 ingururekin, eta txata edo elkarrizketak dira (ikusi 11. taula).

11. taula: EAE-ko 15 urte baino gehiagoko Internet erabiltzaileak.

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Internet erabiltzaileak (milaka)	1.461,60	221,8	763,8	475,9
Guztira (%)	%78,7	%81,2	%78,1	%78,7
Sarbide handieneko egunak				
Lanegunak	%25,9	%25,5	%26,0	%25,9
Jaiegunak	%9,0	%10,5	%9,3	%7,8
Bata zein bestea	%65,1	%64,1	%64,6	%66,3
Interneteko sarreran maiztasuna				
Egunero	%89,0	%87,9	%89,1	%89,2
<i>Etengabe</i>	%63,7	%65,2	%63,9	%62,6
<i>Behin</i>	%2,9	%3,1	%2,2	%3,9
<i>Zenbaitetan</i>	%22,4	%19,6	%22,9	%22,8
Aste guztitan (egunero ez)	%9,2	%9,9	%9,3	%8,8
Gutxienez hilean behin	%1,4	%1,7	%1,1	%1,8
Hil guztietan ez	%0,5	%0,5	%0,6	%0,3
Asteko konexio-denbora				
Orubete edo gutxiago	%12,9	%13,5	%12,5	%13,3
1-5 ordu	%22,1	%24,3	%20,5	%23,6
5-10 ordu	%19,6	%18,9	%19,8	%19,7
10-20 ordu	%18,2	%18,0	%18,3	%18,0
20-50 ordu	%18,6	%17,5	%20,4	%16,3
50 ordu baino gehiago	%8,2	%7,7	%8,1	%8,8
Azken konexioaren batz besteko iraupena				
15 minututik behera	%41,6	%36,3	%41,6	%44,1
15-30 minutu	%27,6	%34,2	%26,7	%26,0
30 minutu - orubete	%14,6	%15,6	%14,9	%13,5
1-2 ordu	%9,3	%8,5	%9,7	%9,0
2-4 ordu	%3,3	%2,8	%3,5	%3,1
4 ordutik gora	%3,7	%2,6	%3,6	%4,3

Iturria: Lanketa propioa, datuak Eustat.

6.3. Mugikorraren erabilera Euskal Autonomia Erkidegoan

Mugikorrari dagokionez, 5. taulan ikusi bezala, EAEko biztanle guztien %94,5ak mugikorra erabiltzen du. Probintziei dagokionez, Araba eta Gipuzkoako biztanleen %95ak erabiltzen du mugikorra, aldiz, Bizkaian biztanleen %94,1ak. Hala eta guztiz ere, orokorrean hiru probintzietan mugikorraren erabiltzaile kopurua altua da. Erabiltzaile hauen familia motari dagokionez, erabiltzaileen %99,2 seme-alabekin bizi da. Erabiltzaileen %94,6a berriz bikotekidearekin bizi da eta aldiz, %87,4a bakarrik. 6. taulako datuen arabera, EAEko 15 urte baino gehiagoko biztanleei dagokionez, biztanle guztien %96,7ak mugikorra erabiltzen du. Probintziei dagokionez, Arabaren kasuan, erabiltzaileen %96,8ak erabiltzen dute mugikorra, Bizkaiaren kasuan, %96,6ak eta azkenik, Gipuzkoaren kasuan, %96,9ak erabiltzen dute. Beraz, nahiz eta probintzia guztietan antzeko erabiltzaile kopurua egon, Gipuzkoan mugikorraren erabiltzaile gehiago daude. Beraz, EAEn biztanleen zati handi bat da mugikorraren jabe.

Eta zenbat erabiltzen dugu mugikorra? Gehiegi? Beharrezkoa denean? Menpekotasuna dugu?

Europapress-en 2018ko abuztuan argitaratutako artikulu batean 256.000 euskaldun mugikorraren menpekota dela kontsideratzen du, izan ere, 170.435 euskaldunek, hau da, %67 batek, baieztatzen dute ezin dutela ordu bat baino gehiago mugikorra begiratu gabe egon. Gainera, erabiltzaileen %81,5ak ez luke jakingo mugikorrari gabe bizitzen. "Rastreator.com"-ek egindako ikerketaren arabera, EAEko 18-65 urte bitarteko biztanle guztien %19,6 mugikorraren mendekoa da. Hala eta guztiz ere, mendekotasunaz ohartzen dira, izan ere, 2018. urtean 2017. urtean baino bi minutu gutxiago erabili dute mugikorra, guztira egunean 3 ordu eta 34 minutu erabiltzen dutelarik. Baina, galdetutako erabiltzaileen %48,9ak egunaren hasieran eta amaieran egiten duten gauza mugikorra begiratzeko dela baieztatu dute. Gainera, %9,8ak gidatu bitartean mugikorra begiratzeko dutela diote (Europa press, 2018).

Mugikorraren erabileraz hitz egitean, puntu garrantzitsua da gailu honen erabilera adingabekoengan. Iraitz Vazquez-ek El Correo egunkarian 2016. urtean argitaratu zuenez, EAEko adingabekoen %79ak mugikorrari bat dauka. EAE, mugikorraren erabileran, Espainiako gainerako herrialdeen gainetik dago, 10-15 urte bitarteko erabiltzaileak kontuan hartzen badira. EAEko IKT-aren barneraketari dagokionez, gazteen artean barneraketa hau haziz joan da 2006tik (Vazquez, 2016).

Adingabeko mutilek mugikorra gehien jokoetan jolasteko eta bideoak ikusteko erabiltzen dute, aldiz neskek, komunikatzeko. Erabilerari dagokionez, mutilen %82,4ak erabiltzen du, aldiz, neskei dagokionez, %75,8ak. Artikulu honetan Maialen Garmendia, EHU-ko soziologa eta irakaslearen hitzetan, 9-16 urte bitarteko gazteen %55,1ak mugikorra momentu oro begiratzeko nahia izaten du, %33,4a ez da ondo sentitzen ezin badu egin (Vazquez, 2016).

7. Galdetegia

Aurreko ataleko emaitzak kontuan izanik eta gehien erabiltzen diren IKT ekipamentuak estatu maila eta EAEn Internet eta mugikorra direla ondorioztatuz, nire inguruko familia, ezagun eta lagunei Internet eta mugikorraren erabilera sakontzea pentsatu dut. Ikerketa abian jartzeko lehenik eta behin orain arteko guztia oinarri hartu eta galdeketa bat sortu dut "Google formularios" deituriko tresnaren laguntzaz. Galdeketa minutu gutxitan erantzuteko 30 galderez osatuta dago. Galdetegia zabaltzeko garaian, gaur egun gehien erabiltzen diren bideak erabili ditut, batetik, Whatsapp bidez zabaldu dut eta bestetik, Facebook-en. Guztira, 196 erantzun desberdin jaso ditut, sexu eta adin desberdinetakoak.

Kontuan izan da, galdeketa neronek zabaldu dudala, galdetegia erantzun dutenen gehiengo gaztea (15-24 urte bitartekoa) da. Generoari dagokionez, galdetegia erantzun dutenen %79,1a emakumezkoa izan da eta %20,9a berriz gizonezkoa. Bizileku edo probintziari dagokionez berriz, galdetegia erantzun duten ia guztiak Gipuzkoarrak dira, %99,5, beraz, esan daiteke, nire ikerketa Euskal Autonomia Erkidegoko, Gipuzkoa probintzian zentratuko dela.

Adinari dagokionez, lehenago aipatu bezala, galdetegia erantzundakoen %70,4a 15-24 urte bitartekoa da. Gainerakoen %2,6ak, 15 urte baino gutxiago dituzte, %9,7ak 25-34 urte bitarte, %8,2ak 35-44 urte bitarte eta %9,2ak 45 urte baino gehiago dituzte.

Ikasketa mailari dagokionez, galdetegia erantzundakoen gehiengoak %75ak goi-mailako edo unibertsitate ikasketak dituzte, %10,2ak derrigorrezko ikasketak, %10,2 erdi-mailako ikasketak, %3,6ak beste ikasketa mota bat eta azkenik, %1ak ez du ikasketarik.

Gaur egun galdeketa bete dutenen gehiengoak, %57,1a ikasten ari da, %38,3a berriz lanean. Gainerako %3,6a langabezian dago eta %1a berriz, erretiratuta dago.

Azkenik, familia motari dagokionez, gehiengoak familiarekin bizi da, %90,3 hain zuzen ere, gainerakoen %4,6 bakarrik bizi da, %4,1 bikotekidearekin eta azkenik, %1ak beste familia mota bat du.

Honako hau da galdetegia:

1. Generoa :

- 1.1. Emakumea
- 1.2. Gizona

2. Probintzia :

- 2.1. Gipuzkoa
- 2.2. Bizkaia
- 2.3. Araba
- 2.4. Beste bat

3. Adina:

- 3.1. 15 urte baino gutxiago
- 3.2. 15-24 urte bitarte
- 3.3. 25-34 urte bitarte
- 3.4. 35-44 urte bitarte
- 3.5. 45 urte baino gehiago

4. Ikasketa maila:

- 4.1. Derrigorrezko ikasketak (DBH-ra arte)
- 4.2. Erdi-mailako ikasketak
- 4.3. Goi-mailako edo unibertsitate ikasketak
- 4.4. Beste ikasketaren bat
- 4.5. Ikasketarik gabe

5. Gaur egun...

- 5.1. Ikasten
- 5.2. Lanean
- 5.3. Langabezian
- 5.4. Erretiratuta

6. Familia mota:

- 6.1. Bakarrik bizi dena.
- 6.2. Bikotekidearekin bizi dena.
- 6.3. Familiarekin bizi dena.
- 6.4. Beste aukeren familia mota bat.

7. Internet erabili... (aukera bat baino gehiago aukeratzea)

- 7.1. Lanerako
- 7.2. Ikasketetarako
- 7.3. Denbora librerako
- 7.4. Beste zerbaitetarako

8. Etxean Internet konexioa?

- 8.1. Bai
- 8.2. Ez

9. Mugikorra:

- 9.1. Bai, smartphone (taktila, gaur egun gehien ezagutzen duguna)
- 9.2. Bai, mugikor sinplea (deitu eta SMS-ak bidaltzen dituen)
- 9.3. Ez

10. Mugikorra Internet konexioarekin, hau da, datuekin?

- 10.1. Bai
- 10.2. Ez

11. Zertarako erabiltzen duzu mugikorra? (4 aukeratu)

- 11.1. Deitzeko
- 11.2. Sare sozialak erabiltzeko
- 11.3. Jokoetan jolasteko
- 11.4. Korreo elektronikoak bidaltzeko
- 11.5. Bideoak ikusteko
- 11.6. Musika entzuteko
- 11.7. SMS-ak bidaltzeko
- 11.8. Argazkiak ateratzeko
- 11.9. Berriak eta albisteak irakurtzeko

12. Zenbat aplikazio dituzu mugikorrean?

- 12.1. Bat ere ez
- 12.2. 1-2 artean
- 12.3. 2-5 artean
- 12.4. 5-8 artean
- 12.5. 8 baino gehiago

13. Zein sare sozial erabiltzen dituzu? (Gehienez lau aukeratu)

- 13.1. Whatsapp
- 13.2. Instagram
- 13.3. Facebook
- 13.4. Twitter
- 13.5. Snapchat
- 13.6. Youtube
- 13.7. Messenger
- 13.8. Skype
- 13.9. Pinterest
- 13.10. LinkedIn
- 13.11. Spotify

14. Zenbat denbora erabiltzen duzu mugikorra egunero gutxi gora-behera?

- 14.1. Ordu bat baino gutxiago
- 14.2. 1-2 ordu egunean
- 14.3. 2-4 ordu egunean
- 14.4. 4 ordu baino gehiago

15. Eguneko zein zatitan erabiltzen duzu gehien mugikorra?

- 15.1. Goizean
- 15.2. Arratsaldean
- 15.3. Gauean

16. Mugikorra, denbora libreaz gain, laneko orduetan edo ikastetxeko orduetan erabiltzen duzu?

- 16.1. Bai
- 16.2. Ez

17. Azken konexioa duela zenbat denbora izan da?

- 17.1. 15 minutu baino gutxiago
- 17.2. 15-30 minutu
- 17.3. 30minutu- ordu bat
- 17.4. 1-2 ordu bitartean
- 17.5. 2-4 ordu bitartean
- 17.6. 4 ordu baino gehiago

18. Zein dira Internet-en egiten dituzun jarduerak nagusiak (2 aukeratu)

- 18.1. Produktu edo ondasun baten inguruko informazioa bilatu
- 18.2. Osasunaren inguruko informazioa bilatu
- 18.3. Sare sozialak erabili
- 18.4. Korreo elektronikoak bidali nahiz jaso
- 18.5. Bideoak ikusi elkarbanatzeko
- 18.6. Online dendak bisitatu/erosi/saldu
- 18.7. Albisteak irakurri

19. Zein hizkuntzatan nabigatzen duzu Interneten?

- 19.1. Euskara
- 19.2. Gaztelera
- 19.3. Ingelesa
- 19.4. Besterenbat

20. Internet bidez erosketak ?

- 20.1. Bai
- 20.2. Ez

21. Zein da gehien erosten duzun ondasun edo zerbitzua?

- 21.1. Arropa
- 21.2. Materiala (kirol materiala, lanerako materiala...)
- 21.3. Ikuskizunetarako sarrerak (zine, kontzertu...)
- 21.4. Bidaiak (alojamentu, garraio txartelak...)
- 21.5. Beste aukeren bat...

22. Zein modutan egiten dituzu ordainketak Internetez erostean?

- 22.1. Kreditu txartel bidez
- 22.2. Kontu korrante bidez
- 22.3. Jasotzean ordainduz
- 22.4. Beste ordainketa mota baten bidez

23. Internetez hitz egitean segurtasuna nolakoa dela iruditzen zaizu?

- 23.1. Segurtasun handia
- 23.2. Segurtasun ertaina
- 23.3. Segurtasun txikia

24. Zenbat urterekin eduki zenuen lehen mugikorra?

- 24.1. 12 urte baino gutxiagorekin
- 24.2. 12-16 urte bitartean

- 24.3. 16-18 urte bitartean
- 24.4. 18-30 urte bitartean
- 24.5. 30 urte baino gehiagorekin

25. Mugikor bat erosterako orduan, zenbat gastatu ohi duzu?

- 25.1. 100€ baino gutxiago
- 25.2. 100-300€
- 25.3. 300-500€
- 25.4. 500-700€
- 25.5. 700€ baino gehiago

26. Zenbatero aldatzen duzu mugikorrez?

- 26.1. Urtean behin
- 26.2. Bi urtetik behin
- 26.3. Beharra dagoenean, hau da, lehenagokoa ordezkatzeko (eperik gabe)

27. Zein da markarik gustukoena?

- 27.1. Apple
- 27.2. Samsung
- 27.3. Huawei
- 27.4. LG
- 27.5. Sony
- 27.6. BQ
- 27.7. Xiaomi
- 27.8. Berdin du markak

28. Mugikorrak dependentzia dagoela uste duzu?

- 28.1. Bai
- 28.2. Ez

29. Horrela balitz, neurriren bat hartzen duzu hori hobetzeko?

- 29.1. Ez
- 29.2. Bai
 - 29.2.1. Egunero gutxiago erabiltzen saiatuz
 - 29.2.2. Erabilera murrizteko aplikazioen bat erabiliz


Honako hauek dira galdetegitik lortutako emaitza nagusiak:

7.1. Internetaren erabilera


Galdetegia erantzundakoen gehiengoak Internet konexioa dauka etxean, %96ak hain zuzen ere, aldiz, %4ak ez.

Generoa eta Internet-en erabileraren arteko erlazioari dagokionez (ikusi 11. irudia), gizonezkoek lanerako gehiago erabiltzen dute emakumezkoek baino. Aldiz, emakumeek gehiago erabiltzen dute ikasketetarako, denbora librerako eta gainerako gauzak egiteko. Orokorrean, aipatu behar da, Interneta gehien denbora librerako erabiltzen dela. Adina eta Internetaren erabilerari dagokionez (ikusi 12. irudia), berriz, 15 urte baino gutxiagokoek ikasketetarako eta denbora librerako erabiltzen dute, 15-24 urte bitartekoek berriz, gehien denbora librerako, nahiz eta ikasketetarako eta lanerako ere erabili ohi duten. 25-34 urte bitartean, gehien denbora librerako erabiltzen dute, nahiz ere ikasketetarako ere erabiltzen duten. 35-44 urte bitartekoei dagokienez, gehiengoak denbora librerako erabiltzen du, beste askok lanerako eta ikasketetarako. Azkenik, 45 urte baino gehiagokoek denbora librerako edo lanerako erabiltzen dute. Beraz, esan daiteke adin guztietan Interneta denbora librerako erabiltzen dela gehienbat.

11. irudia: Internetaren erabilera generoa arabera.



12. irudia: Internetaren erabilera adinaren arabera.




Iturria: Lanketa propioa

Erabiltzaile bakoitzari Internet bidez egin daitezkeen jardueren artean gehien egiten dituzten bi hautatzeko esan zaie. Kontuan izan behar da, galdetegia erantzun dutenen artean gehiengoak emakumezkoa zela, beraz, horregatik aurki daitezke desberdintasun handiak irudian. Orokorrean aztertzen bada, gehien egiten den jarduera nabarmenki, sare sozialen erabilera dela esan daiteke, bigarren maila batean albisteak irakurtzea


eta korreo elektronikoak bidali nahiz jasotzea egongo litzateke. Aipatzekoa da, bideoak ikusi eta elkarbanatzeko jardura ere maiz egiten den jardura bat dela, bi sexu desberdinen aldetik (ikusi 13. irudia).

Adin guztietan gehien egiten den Internet bidezko jardura, sare sozialak erabiltzea dela argi ikusi daiteke 14. irudian. Aipatzekoa da, korreo elektronikoak bidali eta jasotzearen kasuan, 15 urte baino gutxiagokoak izan ezik, gainerako guztiek maiz egiten dutela. Gainerako jardurei dagokienez, gutxien egiten direnak, osasunaren inguruko informazioa bilatu edota ondasun edo zerbitzu baten inguruko informazioa bilatzea da. Albisteak Internet bidez irakurtzearen jardura ere, erabiltzaile batzuk egin ohi dute, gehienbat 15 urtetik gorakoek. Online dendak bisitatzearen jardura eta bideoak ikustearena berriz, adin guztietan, ez da hain ohikoa, %74ak onartzen badute erosketak egiteko erabiltzen dutela.

13. irudia: Internet bidez egindako jardura nagusiak generoaren arabera.



14. irudia: Internet bidez egindako jardura nagusiak adinaren arabera.



Iturria: Lanketa propioa


Erosten al dute Internet bidez erabiltzaileek? Zer erosteko erabiltzen dute?

Internet bidezko erosketei dagokionez, galdeketa erantzundako pertsonen %74ak Internet bidez egiten ditu erosketak. Erositako ondasun eta zerbitzuen inguruak 15 eta 16. irudietan agertzen dira islaturik.


Internet bidez gehien erosten diren ondasun edo zerbitzuak materialak, gizonezkoen kasuan kirol materiala, lan materiala e.a. dira. Aldiz, emakumeen kasuan arropa. (ikusi 15. irudia). Jarrain gehien egiten den erosketak bidaiekin lotutakoak dira, esaterako

alojamentu, garraio txartelak e.a. Aldiz, ikuskizunetarako sarrerak ez dira hain ohikoak beste ondasun eta zerbitzuekin alderatzen baditugu.

15. irudia: Internet bidez erosten diren ondasun edo zerbitzuak generoaren arabera.



16. irudia: Internet bidez erosten diren ondasun edo zerbitzuak adinaren arabera.







Iturria: Lanketa propioa.

Internet bidez egiten diren erosketak desberdinei dagokienez, adinaren arabera banatu ondoren, gehien egiten diren erosketak arropak eta bidaiak direla esan daiteke (ikusi 16. irudia) Gehien 15-24 urte bitarteko gazteek egiten dituztelarik erosketak mota hauek. Jarraian, gehien egiten diren erosketen artean ikuskizunetarako sarrerak aurki daitezke, adinak gora egin ahala gutxiago egiten direlarik mota honetako erosketak. Aldiz, materialaren kontrako kasua gertatzen da, 15-24 adin tartea kontuan izan gabe, adinak gora egin ahala materiala gehiago erosten da. Orokorrean gehien erosten den ondasun edo zerbitzua arropa da.

Internetaren erabilerrari buruzko analisi deskribatzaile hau gauzatu ondoren, adina, jarduera, generoa, erabilera, e.a arabera, 17. Irudian galdeketaren ondorioz bildutako bestelako xehetasunak laburbilduko ditut, hizkuntza, erosketak ordaintzeko bidea, azken konexioa eta segurtasunari buruzko ondorioak alegia.

17. irudia: Internetaren erabileraren inguruko beste zenbait datu.

 <p> ■ Kreditu txartel bidez ■ Kontu korrante bidez ■ Jasotzean ordainduz ■ Beste ordainketa mota baten bidez </p>	<p>Erosketa hauek egiteko orduan, %77ak kreditu txartel bidez ordaintzen ditu bere erosketak. %9ak berriz, kontu korrante bidez eta %4ak jasotzean ordainduz. Azkenik, %10 batek aurretik aipatutako ordainketa mota ez den beste mota baten bidez.</p>
 <p> ■ Segurtasun handia ■ Segurtasun ertaina </p>	<p>Internet bidez nabigatzerako orduan dagoen segurtasunaren inguruko iritziari dagokionez, %54ak segurtasun ertaina dagoela uste du eta %40ak berriz, segurtasun txikia. Aldiz, segurtasun handia dagoela uste dutenen portzentajea oso txikia da %6a bakarrik.</p>
 <p> ■ Euskara ■ Gaztelera ■ Ingelesa ■ Beste bat </p>	<p>Internet bidez nabigatzeko hizkuntzari dagokionez, erabiltzaileen %69ak gaztelera nabigatzen du eta %28ak berriz euskaraz. Aldiz, Internet erabiltzaileen %3ak ingelesez nabigatzen du.</p>
 <p> ■ 15 minutu baino gutxiago ■ 15-30 minutu bitartean ■ 30 minutu-ordu bat ■ 1-2 ordu bitartean ■ 2-4 ordu bitartean ■ 4 ordu baino gehiago </p>	<p>Erabiltzaileen azken Internet konexioa noiz izan den galdetu ondoren, erabiltzaile guztien %65ak, duela 15 minutu baino gutxiago erabili du Internet-a. Aldiz, %13ak, duela 15-30 minutu bitartean, %11ak berriz, 30 minutu ordubete inguruan. Azkenik, %5ak, azken konexioa duela 1-2 ordu bitartean izan du, %1ak 2-4 ordu bitartean eta %5ak, duela 4 ordu baino gehiago. Beraz, orokorrean esan daiteke, erabiltzaileen ehuneko handi bat minutu gutxiren buruan konektatzen dela Internetera, hau da, modu konstanteak dagoela konektaturik.</p>

Iturria: Lanketa propioa



7.2. Mugikorraren erabilera

Internet-aren inguruko datu desberdinak aztertu ondoren, mugikorraren atalean zentratuko gara. Hasteko, erabiltzaileen artean zein motatako mugikorra duten, mugikorra Internet konexioarekin duten... aztertuko ditugu. Segidan, mugikorra nolakoa (marka, prezioa, aplikazio kopurua...) den edota nola ekipatuta duten aztertuko dugu. Jarraian, erabilera hau, non, noiz, zertan erabiltzen duten ikertuko dugu. Azkenik, erabiltzaileak bere ustez mugikorrarekiko dependentzia duen edo ez, hau da, mugikorraren menpe bizi den, eta hau baietz balitz, zerbait egiten duen hau murrizteko.

Galdetegia erantzundako ia erabiltzaile guztiek, hau da, %99ak mugikor bat dauka. Aldiz, erabiltzaile gutxi batzuk mugikor sinplea, %1ak hain zuzen ere. Mugikor sinpleaz hitz egitean, deiak egin, SMS-ak bidali eta beste jarduera gutxi batzuk egiten dituen mugikorraz hitz egiten ariko ginateke. Mugikorra duten erabiltzaileen artean une oroko Internet konexioa mugikorrean duten galdetu diegu, hau da, datuak dituzten. Erabiltzaileen %99ak une oroko Internet konexioa dauka, hau da, datuak ditu kontratatuta, aldiz, %1ak ez.

18. irudia: mugikorren inguruko informazioa.

<p>A pie chart showing the distribution of mobile phone brands preferred by users. The data is as follows:</p> <table border="1"> <thead> <tr> <th>Marka</th> <th>Porzentaia</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Apple</td> <td>27%</td> </tr> <tr> <td>Samsung</td> <td>14%</td> </tr> <tr> <td>Huawei</td> <td>15%</td> </tr> <tr> <td>LG</td> <td>8%</td> </tr> <tr> <td>Sony</td> <td>3%</td> </tr> <tr> <td>BQ</td> <td>0%</td> </tr> <tr> <td>Xiaomi</td> <td>0%</td> </tr> </tbody> </table>	Marka	Porzentaia	Apple	27%	Samsung	14%	Huawei	15%	LG	8%	Sony	3%	BQ	0%	Xiaomi	0%	<p>Erabiltzaileen mugikor marka gustukoena agertzen dira. Erabiltzaileen %33ari berdin dio markak, hau da, ez dio garrantzirik ematen. %27ak Apple marka du gustuko, %15ak Huawei eta %14ak berriz, Samsung. Gainerako marken artean, %8ak Xiaomi marka du gustuko eta %3ak BQ. Beraz, orokorrean mugikorraren marka ez da hain garrantzitsua erabiltzaileentzat.</p>
Marka	Porzentaia																
Apple	27%																
Samsung	14%																
Huawei	15%																
LG	8%																
Sony	3%																
BQ	0%																
Xiaomi	0%																
<p>A pie chart showing the distribution of mobile phone price ranges. The data is as follows:</p> <table border="1"> <thead> <tr> <th>Prezio Erama</th> <th>Porzentaia</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>100€ baino gutxiago</td> <td>9%</td> </tr> <tr> <td>100€-300€</td> <td>67%</td> </tr> <tr> <td>300€-500€</td> <td>10%</td> </tr> <tr> <td>500€-700€</td> <td>10%</td> </tr> <tr> <td>700€ baino gehiago</td> <td>4%</td> </tr> </tbody> </table>	Prezio Erama	Porzentaia	100€ baino gutxiago	9%	100€-300€	67%	300€-500€	10%	500€-700€	10%	700€ baino gehiago	4%	<p>Erabiltzaile bakoitzak mugikor bat erosteko orduan gastatu ohi dute dirua agertzen da. Erabiltzaileen zati handi batek, %67ak, 100€-300€ bitartean gastatu ohi du. Gainerako %10ak, 300€-500€ bitartean gastatu ohi ditu, beste %10ak 500€-700€ bitartean gastatu ohi ditu, %9ak berriz, 100€ baino gutxiago ordaindu ohi izan du. Ehuneko zati txiki bat, %4ak, 700€ baino gehiago ordaindu ohi ditu bere mugikorratik. Beraz, esan daiteke, gehiengoak 100€-300€ bitartean ordaintzen dituela bere mugikorratik.</p>				
Prezio Erama	Porzentaia																
100€ baino gutxiago	9%																
100€-300€	67%																
300€-500€	10%																
500€-700€	10%																
700€ baino gehiago	4%																

 <p>■ Urtean behin</p> <p>■ Bi urtetik behin</p>	<p>Mugikorra aldatzeko orduan, %91ak, beharra dagoenean aldatzen du mugikorra, hau da, lehenagotik duen mugikorra izorratu edo erabiltzeko moduan ez dagoenean. %8ak gutxi gora behera, bi urtetik behin aldatzen du mugikorra eta aldiz, %1ak urtean behin aldatzen du mugikorrez.</p>
 <p>■ Batere ez</p> <p>■ 1-2 artean</p> <p>■ 2-5 artean</p> <p>■ 5-8 artean</p> <p>■ 8 baino gehiago</p>	<p>Mugikorrean instalatutako aplikazio kopuruari dagokionez, mugikor erabiltzaileen %38ak 8 aplikazioa baino gehiago ditu mugikorrean. %29ak, 2-5 aplikazio artean dituzte mugikorrean eta %26ak berriz, 5-8 aplikazio bitartean. Azkenik, %6ak, 1-2 aplikazio artean ditu mugikorrean eta aldiz, %1ak ez du aplikaziorik mugikorrean. Beraz, esan daiteke, erabiltzaileen gehiengoak 2 aplikaziotik gora dituela mugikorrean.</p>

Iturria: Lanketa propioa.


Mugikorraren erabileran zentratuz, lehenik eta behin mugikorra denbora libreaz gain, beste eremutan, esaterako laneko orduan edota ikastetxeko orduan erabiltzen den aztertuko dugu. Galdetegia erantzundako, mugikor erabiltzaileei dagokienez, denbora libreaz gain, erabiltzaileen %66ak lan orduetan eta ikastetxeko orduetan ere mugikorra erabili ohi du. Aldiz, %34ak ez du erabiltzen mugikorra eremu horietan. Eguneko zati desberdinei dagokienez, erabiltzaileen %62ak gauean erabiltze du, aldiz, %30ak arratsaldean eta gutxi batzuk, %8ak goizean. Beraz, lan ordutegiagatik edo ikaste ordutegiagatik, esan daiteke, erabiltzaileek gauez erabiltzen dutela gehien mugikorra.

Erabiltzaile bakoitzari, mugikorraren bidez egiten dituen lau jarduera desberdin aukeratzeko eskatu zaio eta erantzunak goiko irudian generoaren arabera banaturik islatzen dira (ikusi 18. irudia) . Orokorrean, gehien egiten den jarduera mugikor bidez, sare sozialak erabiltzea da. Segidan, gehien deitzeko, musika entzuteko eta albisteak irakurtzeko erabili ohi dute. Argazkiak ateratzeko eta bideoak ikusteko ere maiz erabili izan dute. Aipatzekoa da, jokoak jolasteko orduan gizonezkoak gehiago erabiltzen dutela mugikorra. Aldiz, SMS-ak bidaltzeko kasuan, gizonezkoek ez dute hainbeste erabiltzen mugikorra.


Adinaren arabera banatzen baditugu (ikusi 19. irudia) , gehien egiten diren jarduerak, sare sozialak erabili, deitu eta argazkiak ateratzea dira. Jarduera hauek adin guztietako erabiltzaileek egiten dituzte. Musika entzuteko kasuan, gehien 15-24 urte bitarteko gazteek egiten dute, esan daiteke, adinak gora egin ahala jarduera hau gutxiago egiten dela. Albisteak irakurri eta korreo elektronikoak bidaltzearen kasuan, adin guztietakoek

egiten dute, gutxien adingabeek, hau da, 15 urte baino gutxiagokoek egiten dutelarik. Mugikor bidez jokoak jolasteko orduan, 15-24 urte bitarteko erabiltzaileak eta 45 urte baina gehiagokoak dira jarduera hau egiten dutenak. Bideoak ikusteko orduan, gazte edo nerabeak dira gehien ikusten dituztenak mugikor bidez. Azkenik, SMS-en kasuan, 15-24 urte bitarteko gazteak eta 45 urte baina gehiagoko erabiltzaileak dira, gehien erabiltzen dituztenak.

19. irudia: mugikor bidez erabiltzaileek egiten dituzten jarduera nagusiak, generoaren arabera.



20. irudia: mugikor bidez erabiltzaileek egiten dituzten jarduera nagusiak, adinaren arabera.




Iturria: Lanketa propioa.

Erabiltzaileei mugikorra erabiltzen pasa ohi duten denboraren inguruan galdetu diegu, eta goiko irudian generoaren arabera banatu dira jasotako erantzunak (ikusi 20. irudia). Orokorrean, erabiltzaile gehienek 2-4 ordu inguru pasatzen dituztela uste dute egunean zehar. Beste erabiltzaile askok 1-2 ordu bitartean erabiltzen dute mugikorra egunean. Aldiz, orokorrean erabiltzaile gutxi erabiltzen dute mugikorra ordu bat baino gutxiagoz egunean eta 4 ordu baino gehiagoz. Orokorrean ikus daiteke emakumeak direla, ordu desberdinetan mugikorrak gehien erabiltzen dituztenak, honen arrazoia, galdeketa pasatzeko orduan emakumeen aldetik erantzun gehiago jaso direlako izan daiteke. Laburbilduz, orokorrean erabiltzaileek egunean 2-4 ordu bitartean mugikorra erabiltzen dutela uste dute.


Adinari dagokionez (ikusi 21. irudia), 15 urte baino gutxiagoko erabiltzaileen kasuan, erabiltzaile gehienek 1-2 ordu bitartean erabiltzen dute mugikorra. 15-24 urte bitarteko erabiltzaileen kasuan berriz, erabiltzaile gehienek, 2-4 ordu bitartean erabiltzen dute mugikorra, nahiz eta beste erabiltzaile askok 1-2 ordu bitartean eta 4 ordu baino gehiagoan erabili ohi duten. 25-34 urte bitarteko erabiltzaileen kasuan, erabiltzaile gehienek 1-2 ordu bitartean erabiltzen dute, nahiz eta erabiltzaile batzuk 2-4 ordu bitartean eta 4 ordu baino gehiago erabiltzen duten. 35-44 urte bitarteko erabiltzaileei dagokionez, erabiltzaile gehienek ordu bat baino gutxiago erabili ohi dute

mugikorra egunean, nahiz eta antzeko erabiltzaile kopuruak 1-4 ordu bitartean erabili ohi duten mugikorra. Azkenik, 45 urte baino gehiagoko erabiltzaileen kasuan, gehienek 1-2 ordu bitartean erabiltzen dute mugikorra, nahiz eta erabiltzaile kopuru handi batek ordu bat baino gehiago erabili ohi dute. Aipatzekoa da, gazteak direla mugikorra ordu askoz erabiltzen duten erabiltzaile mota, aldiz, adinak altuagoa denean, mugikorra ordu gutxiagoz erabiltzen dute.

21. irudia: erabiltzaileen ustez, mugikorra erabiltzen pasatzen duten denbora, generoaren arabera.



22. irudia: erabiltzaileen ustez, mugikorra erabiltzen pasatzen duten denbora, adinaren arabera.




Iturria: Lanketa propioa.

Sare sozialei dagokionez, gizonek gehien erabiltzen dituzten sare sozialak, Whatsapp, Youtube, Instagram eta Facebook dira. Aldiz, gutxien Messenger, Skype eta LinkedIn dira. Emakumeen kasuan berriz, sare sozial erabilienak, Whatsapp, Instagram, Youtube eta Facebook dira. Gutxien berriz, Skype, Messenger eta LinkedIn dira. Beraz, genero aldetik ez dago sare sozialen erabileran desberdintasunik, gehien erabiltzen diren sare sozialak Whatsapp, Youtube, Facebook eta Instagram dira (ikusi 22. irudia).


Sare sozialaren erabilera eta adinaren arteko erlazioari dagokionez, 15 urte baino gutxiagoko erabiltzaileek gehien Whatsapp eta Instagram erabiltzen dituzte. 15-24 urte bitarteko erabiltzaileen kasuan, Whatsapp, Instagram eta Youtube dira gehien erabiltzen dituztenak. 25-34 urte bitarteko erabiltzaileen kasuan berriz, Whatsapp, Youtube eta Facebook dira erabilienak. 35-44 urte bitartekoen kasuan, Whatsapp, Facebook eta Youtube dira erabilienak. Azkenik, 45 urte baino gehiagoko erabiltzaileen kasuan ere, Whatsapp, Facebook eta Youtube dira erabilienak. Beraz, orokorrean

gehien erabiltzen diren sare sozialak Whatsapp eta Youtube dira, nahiz eta Instagram eta Facebook ere oso erabiliak diren (ikusi 23.irudia).

23. irudia: erabiltzaileek gehien erabiltzen dituzten sare sozialak, generoaren arabera.



24. irudia: erabiltzaileek gehien erabiltzen dituzten sare sozialak, adinaren arabera.




Iturria: Lanketa propioa.


Mugikorraren erabileraz hitz egitean puntu garrantzitsu bat da, gailu honengandiko mendekotasun edo dependentziaz kontziente garen jakitea. Horregatik, galdeketa azken zatian erabiltzaile bakoitzari mugikorrak dependentzia dagoen galdetu zaio, eta hala den kasuan neurriren bat hartze ote duen hau konpondu edo murrizteko.

Orokorrean, erabiltzaileen %63ak mugikorrak dependentzia dagoela uste du, aldiz, %37ak kontrakoa uste du. Ikerketa sakonago egiteko, dependentziaz duten iritzia, generoa eta adinaren arabera banatuta aztertuko dugu segidako bi irudietan.

25. irudia: mugikorraren dependentziaren inguruko iritzia, generoaren arabera.



26. irudia: mugikorraren dependentziaren inguruko iritzia, adinaren arabera.



Iturria: Lanketa propioa.


Generoari dagokionez, (ikusi 24. irudia) emakumeen gehiengoak, dependentzia dagoela uste du. Aldiz, gizonezkoen kasuan, gehiengoak dependentziarik ez dagoela uste du, nahiz eta bi iritzien arteko desberdintasuna ez den hain handia.

Adinari dagokionez, (ikusi 25. irudia) 15 urte baino gutxiagoko gehiengoak dependentzia dagoela uste du. 15-24 urte bitarteko erabiltzaileen gehiengoak ere dependentzia existitzen dela uste du, bi iritzi desberdinen artean alde handia dagoelarik. 25-34 urte bitarteko kasuan ere, gehiengoak dependentzia dagoela uste du, nahiz eta bi iritzien arteko alde ezten hain nabarmena. 35-44 urte bitarteko artean ere iritzi gehiengoak dependentziaren aldekoa da, nahiz eta askok ez dagoela ere pentsatu. Azkenik, 45 urte baino gehiagoko kasuan, gehiengoak ez dagoela dependentziarik uste du, nahiz eta adin honetako erabiltzaile batzuk dependentzia ere badagoela uste duen. Beraz, orokorrean esan daiteke, erabiltzaileen gehiengoak mugikorrak dependentzia dagoela uste duela.


Dependentzia hau murrizteko erabiltzaileek hartukotako neurriei dagokienez, (ikusi 26. irudia) emakumeen zati handi batek ez du neurririk hartzen, nahiz eta beste erabiltzaile asko egunero gutxiago erabiltzen saiatzen da. Gizonezkoen kasuan, berriz, gehiengoak ez du neurririk hartzen bere gehiegizko erabilera murrizteko. Nahiz eta, erabiltzaileen zati handi bat egunero gutxiago erabiltzen saiatzen den. Orokorrean, erabilera murrizteko aplikaziorik ez dute erabiltzen inguruko erabiltzaileek.

Adinari dagokienez, (ikusi 27. irudia) adin guztietako erabiltzaileek ez dute ezer egiten mugikorraren gehiegizko erabilera murrizteko. Hala eta guztiz ere, erabiltzaileen beste zati bat egunero gutxiago erabiltzen saiatzen da. Aldiz, erabilera murrizteko aplikazio bat erabiltzearen kasuan, 15-24 urteko erabiltzaile gutxi batzuk erabiltzen dute.

27. irudia: mugikorraren dependentzia murrizteko neurriak, generoaren arabera.



28. irudia: mugikorraren dependentzia murrizteko neurriak, adinaren arabera.



Iturria: Lanketa propioa.

7.3. Galdetegiaren ondorioak

Behin lortutako datuak aztertu ondoren bi ondorio desberdin lortu daitezke, batetik, ondorio orokorrak lortuko ditut datuetan oinarriturik eta bestetik, lortutako ondorio hauek nire kasuarekin alderatuko ditut.

Orokorrean, Interneten erabilerari dagokionez, generoa eta adina kontuan izan gabe, denbora librerako erabiltzen da, jarduera nagusia sare sozialak erabiltzea delarik. Internet bidezko erosketei dagokionez, emakumeen kasuan arropa da gehien erosten den ondasuna, aldiz, gizonezkoen kasuan, kirol materiala, lan materiala, e.a. Adinari dagokionez, orokorrean adin guztietan gehien erosten den ondasun edo zerbitzuak, bidaiekin lotutakoak dira, alojamentu, garraio txartel, e.a. Nahiz eta arropa ere maiz erosten duten. Interneten erabileraren inguruko beste datu batzuk aipatzearren, Internet bidezko erosketak gehien kreditu txartel bidez ordaintzen dira. Segurtasunari dagokionez berriz, erabiltzaileek segurtasun ertaina dagoela uste dute nabigatzerako orduan. Nabigazio hizkuntzaren kasuan, erabiltzaileen hizkuntza erabiliena, gaztelera da. Azken konexioari dagokionez, erabiltzaileak 15 minutu baino gutxiagoan egiten dute berriz beraien konexioa.

Mugikorraren kasuan, galdetegi betetako ia erabiltzaile guztiek, Internet konexiodun mugikorra dauka. Mugikor hau erosteko orduan, gehiengoak ez dio markari garrantzirik ematen, eta 100€-300€ bitartean ordaindu ohi izan du. Mugikorraz aldatzeko epeei dagokionez, gehiengoak, beharra dagoenean aldatzen du, hau da, lehenagotik duenak funtzionatzen uzten dionean.

Aplikazio kopuruari dagokionez, gehiengoak 8 aplikazio baino gehiago ditu bere mugikorrean. Mugikor bidez gehien egindako jarduera nagusia sare sozialak erabiltzea da, bi generoak eta adin tarte guztiak erantzun honetan bat etortzen direlarik.

Egunean mugikorra erabiltzen den denborari dagokionez, bi generoek 2-4 ordu bitartean erabiltzen dute, adinari dagokionez, badaude desberdintasunak, izan ere, 15-24 urte bitartekoek 2-4 ordu bitartean erabiltzen baitute, aldiz gainerako adin tartekoek gehien 1-2 ordu bitartean.

Sare sozialei dagokienez, genero eta adin desberdinetako erabiltzaileek gehien erabilitako sare soziala Whatsapp-a da.

Mugikorrarekiko dependentziari dagokionez, emakumeen iritziz existitzen da dependentzi hori, aldiz, gizonezkoen iritziz ez. Adin desberdinetako erabiltzaileen iritziz, 45 urte baino gutxiagoko erabiltzaileek, dependentzia dagoela uste du, aldiz, 45 urte baino gehiagokoek ez. Dependentzi hau murrizteko neurriei dagokionez, orokorrean erabiltzaile guztiek ez dute neurririk hartzen.

Galdetegitik ateratako ondorio hauek oinarritzat hartuta, nire erantzunekin alderatu ditut. Horrela, Internetaren erabilerari dagokionez, denbora librerako erabiltzen dut gehien, egiten dudan jarduera nagusia sare sozialak erabiltzea delarik. Internet bidezko erosketei dagokienez, gehien arropa erosten dut, hauek kreditu txartel bidez ordaintzen ditudalarik. Segurtasunari dagokionez, nahiz eta geroz eta segurtasun handiagoa dagoen, ez dela oso handia esango nuke. Nabigatze-hizkuntzari dagokionez, gehienetan gazteleraz nabigatzen dut, informazio gehiago baitago eskuragarri hizkuntza honetan. Azken konexio denbora aipatzekotan, berriz, azken konexioa 15 minutu baino gutxiago izan da.

Mugikorren kasuan, une oroko Internet konexioa duen mugikorra daukat. Erosterako orduan, ez diot garrantzirik ematen markari, baina 100€-300€ bitartean gastatu ohi izan dut, mugikor aldaketa, aurretik dudanak funtzionatzen uzten dioenean aldatzen dut. Aplikazioen kasuan, 8 aplikazio baino gehiago ditut mugikorrean. Mugikor bidez egindako jarduerari dagokionez, sare sozialak erabili, deitu eta mezu elektronikoak bidaltzea da. Egunean mugikorra erabiltzen pasatako denborari dagokionez, 2-4 ordu bitartean dela esango nuke. Gehien erabiltzen dudan sare soziala berriz, Whatsapp-a da, nahiz eta, Instagram eta Spotify ere asko erabiltzen ditudan. Dependentziaren gaiari dagokionez, nire ustez, badago mugikorragatikiko dependentzia baina nik ez dut neurririk hartzen hau murrizteko.

Beraz, esan daiteke, nire erantzunak bat datozela, ondorio orokorrekin. Galdetegia bete duten erabiltzaileen gehiengoa emakume eta 15-24 urte bitartekoa izanik, erantzun ia guztiak berdintsuak dira. Laburbilduz, Internet eta mugikorra gehien sare sozialetarako erabiltzen da, hauen erabilera intentsiboa eginez. Gainera, orokorrean, kontziente gara, mugikorraren menpe bizi garela eta gehiegizko erabilera egiten dugula, baina ez dugu hau murrizteko neurririk hartzen.

8. Ondorioak

Laburbilduz, IKT tresna edo gailuei dagokionez, Espainian gehien erabilitako tresnak Interneta eta mugikorra dira. Internetaren kasuan, urtetik urtera geroz eta gehiago

erabiltzen direlarik, adin guztietako erabiltzaileen artean. Mugikorraren kasuan ere, joera gorakorra dauka, gaur egun edozein adinetako erabiltzaileek erabiltzen dutelarik. Honen batz besteko erabilera denbora egunean 2 ordu eta 27 minutukoa da Espainian, erabilera gehien 18-24 urte bitarteko gazteek egiten dutelarik. Nahiz eta, kasu askotan gehiegizko erabilera egin, gehiengoa ez da saiatzen erabilera hau murrizten.

EAE-ren kasuan, berriz, Espainiarenean bezala, IKT gailu erabilienak Interneta eta mugikorra dira. Mugikorraren kasuan, egunean 3 ordu eta 34 minutu erabiltzen da, Espainian baino ordu bat gehiago. Bi gailu edo tresna hauen erabilera ere, urtetik urtera handituz doa, adin guztietako erabiltzaileek erabiltzen duteztelarik.

Galdetegiaren kasuan, lehen aipatu bezala, mugikorra eta Interneta maiz erabiltzen diren gailuak dira jarduera desberdinak egiteko, nahiz eta, nagusiki sare sozialak erabiltzeko erabili. Eguneroko erabiltze denborari dagokionez 2-4 ordu bitartekoa da, hau, bat dator Espainia eta EAEko datuekin.

Nahiz eta eguneroko denbora hau ez den hain beldurgarria, aste guztiko orduak kontuan hartzen baditugu, gutxi gora-behera astean 21 ordu ibiltzen dugu mugikorra, hau da, ia asteko egun oso bat.

Ondorioz, esan daiteke, Interneta eta mugikorraren erabilera handituz joan dela urtetik urtera ingurune hauetan, adin eta genero desberdinetako erabiltzaileek erabiltzen dutelarik. Azken batean, bien arteko konbinazio batekin, hau da, Internet konexiodun mugikor batekin, edozein momentu eta lekutatik, mota desberdinetako jarduerak egin ditzakezu.

Ingurune guztia asko aldatzen ari da teknologiari esker, gaur egun, ez dakigu hau gabe bizitzen. Lanean zehar behin baina gehiagotan aipatu dira, gehiegizko erabilera, menpekotasun eta dependentzia terminoak, nahiz eta ikerketarekin hasi baino lehen, hauek existitzearen susmoa eduki, orain, ondorio bezala, aipatu beharrekoa da, benetan existitzen dela gehiegizko erabilera hau. Orokorren, lanean islatzen da, une oro dugula mugikorra eskuan eta jarduera desberdinak egitea ahalbideratzen digula.

Ondorio garrantzitsu bat aipatzearren, esan daiteke, nahiz eta, kontziente garen gehiegizko erabilera honetaz, ez dugula ezer egiten hau murrizteko eta honek horrela jarraitzen badu ondorio larriak ekar ditzake gure ingurura.

Etorkizunera begira jartzen bagara, eta orain arteko eboluzioa kontuan izanik, azken urtetan izan duen gorakadaz gain, tresna hauen erabilera eta barneraketa handituz joango dela begi bistakoa da. Gainera, zer esanik ez dago, azken egunetako albisteei erreparatzen badiegu, guztiak Vodafone konpainiaren 5G-ren inguruan hitz egiten dute. Abiadura biziko Internet konexioa da, fitxategi, pelikula, e.a. azkarrago deskargatzeko aukera ematen duena. Nahiz eta, oraindik mugikor gutxietan dagoen eskuragarri, denborak aurrera joan ahala denok izango dugu aukera abantaila hauetaz gozatzeko. Hortaz, erabilera handituz, mendekotasuna ere handitzen da eta bakoitzaren gain egongo da gehiegizko erabilera hau kontrolpean izatea.

9. Erreferentzia iturriak

Bahillo, L. (2019-03-19). Marketing4ecommerce. <https://marketing4ecommerce.net/historia-de-internet/>

BBC. (2010-04-26). https://www.bbc.com/mundo/ciencia_tecnologia/2010/04/100426_inventor_telefono_celular_pl

Computing. (2018-05-30). <http://www.computing.es/mundo-digital/noticias/1105733046601/top-5-de-comunidades-autonomas-materia-tic.1.html>

Deloitte. (2017). Global Mobile Consumer Survey.

Ditrendia. (2018). Mobile en España y en el Mundo.

ElEconomista. (2017-12-19). El País Vasco es la cuarta región con más empleo TIC en España. <https://www.eleconomista.es/economia/noticias/8819603/12/17/-El-Pais-Vasco-es-la-cuarta-region-con-mas-empleo-TIC-en-Espana.html>

Europa press. (2018-08-30). Europa press. <https://www.europapress.es/euskadi/noticia-mas-256000-vascos-consideran-adictos-movil-170435-aseguran-no-pueden-estar-mas-hora-mirarlo-20180830111956.html>

Eustat. <http://www.eustat.eus/indice.html>

Grupo IOE. (2018-04-10) Business school IOE. <https://www.grupoioe.es/para-que-sirven-las-tics/>

IAB Spain. (2018). Estudio Anual de Redes Sociales.

INE. (2018-11-07). Encuesta sobre Equipamiento y Uso de Tecnologías de Información y comunicación en los hogares.

Internet. (2018). <https://www.significados.com/internet/>

Montano, J. lifeder.com. Historias de las TICs. <https://www.lifeder.com/historia-tics/>

Neoteo. (2012-02-02). ABC. <https://www.abc.es/20120222/tecnologia/abci-simon-primer-smartphone-historia-201202221308.html>

News, B. (2010-04-26). https://www.bbc.com/mundo/ciencia_tecnologia/2010/04/100426_inventor_telefono_celular_pl

ONTSI. (2018). Informe anual del sector tic y de los contenidos en España.

Puyol, J. (2016-01-10). Confiflegal.

Sotillo, B. (2016-04-07). Los vascos superan la media del Estado en acceso y uso de Internet. Deia.

Tecnologia&Informatica. <https://tecnologia-informatica.com/telefono-celular-historia-evolucion-celulares/>

TIC (Tecnologías de la información y la comunicación). (2019). <https://www.significados.com/tic/>

Vazquez, I. (2016-10-24). El %79 de los niños vascos tiene un móvil, a la cabeza de España. El Correo.

Venegas, D. (2018-02-20). Cambio16. <https://www.cambio16.com/moviles-en-espana-adiccion-nacional/>

24horas. (2004-08-19). <https://www.24horas.cl/tendencias/ciencia-tecnologia/la-evolucion-de-los-celulares-a-20-anos-del-primer-smartphone-1380086>